

# Arrasate

UPRESS

1996ko  
Maiatzak 24  
321. zenb.

## IRITZIA

Nati Sanchez

## ELKARRIZKETA

Joseba Ezpeleta,  
AEDko  
lehendakari  
berria

## KULTURA

Leire Solupe

## KIROLAK

Atletiko taldeak  
goi mailan  
jarraitzen du

# Gomazko gorputzak

Gimnasia Erritmikako Gipuzkoako Txapelketa



*Mar Gomezen konpainiak aurkezten du:*

## *La Nostalgia del pepino*

- Amaia Antzokian
- Maiatzak 25 (Larunbata)
- Gaueko 20.00etan
- SARRERAK: 800 pta.  
(Gazte-Txartelarekin 600 pta.)



## ROMEO Y JULIETA

*W. Shakespeare*

Bertsioaren  
zuzenketa:  
ELENA PIMIENTA

- Amaia Antzokian
- Maiatzak 31 (Ostirala)
- Gaueko 22.30etan
- SARRERAK: 1.000 pta.  
(Gazte-Txartelarekin 800 pta.)

# UR

ANTZERKIA



ARRASATEKO UDALA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

# Tripartittoa errealitateari iheska

**M**aiatzeko egunen batean euskal preso politikoen inguruko mahainguru bat izatekoa zen ATBn. Ez da egin. Ez hau ezta euskal errealitate gatazkatsuaeren gainean landu beharreko beste gai batzuek ere. Senideak keko ordezkari moduan joatekotan nintzen presoenera eta zerranda luzea prestatuta neukan, amaigabea tamalez, eta Espainiako eta Frantziako kartzeletako egoera garrantzaren zipristintxo batzuk besterik ez direnak.

Esan behar nuen iaz senideen artean 11 auto istripu izan zirela eta aurtan (martxoaren hasiera arteko datuetan) dagoeneko 5 izan direla. 1995ean preso 600 traslado jasan behar izan zituztela, eta funtzionari eta goardia zibilek 10 preso jipoitu zituztela (JIPOITU!). Ortega Lara bahituta dagoenetik era guztietako eraso eta trabak areagotu egin direla preso zein familiarrendako. Kasu zehatzak aipatzeagatik, Jose Antonio Fernandez 4 urtez isolamenduan izan dela Sevilla IIko espetxean (22 ordu zeldan bakarrik eta 2 patioan, gehienetan bakarrik ere; ispilu aurrean berba egin behar izaten zuela berba egitea ez ahazteko). Kartan interbentzioa eta erabili beharreko hizkuntzaz ere jardun gura nuen: batzuetan euskaraz idatz liteke eta presoek gutuna itxita jasotzen dute eta beste batzuetan ez. Zergatik? Auskalo, baina -nigandik "gertuenekoa" aipatzeagatik- Murtziako espetxean diotenez "presoek funtzionarioei buruzko informazioa ateratzen dute". Familiarrok ere, beste horrenbeste egingo ote dugu? Gure poltsiko xumeetatik aterata, Espainian zehar barreiatutako milaka milioi pezetek ere mintzatu gura

nintzen (nahiz eta inongo epairik ez gaituen horretara kondenatu). Eta jarraitu ezkerro, Arrasate Press osoa bete ahal izango nuke inongo zailtasun barik. Horrela da, bai.

Baina ez, mahaikideak ez zeuden entzun beharrekoak entzuteko prest, ezta salaketa baldekadarik jasoteko prest ere. PSOEk diseinatu eta EAJK lagundu duen politika defenda ezina baita. Tripartitok (PSOE, EAJ, EA) argi adierazi du: "orain ez da momentua". Ez presoeren egoeraz, ez autodeterminazioaz, ez beste edozertaz hitzegiteko. Ez dago aklaraterik, "demokrazian botoa eta berba dira nagusi", "biolentzia barik edozer gauza defenda daiteke" eta antzerakoak ahokadaka botatzen direnean eta gero, herriko komunikabide txukun batek -ATBk- eskainitakoari uko egiten zaionean, argudio horiek guztiak non geratzen diren galdetu behar da. Ezker Abertzalearen "ahultasun ideologikoa" horren agerian uzteko aukera paregabea ez aprobetxatzea, ez da prezisamente indartasunaren adierazle. Sarritan entzuten da "huida hacia delante", baina hemen iheska nor ari den galdetu beharko litzateke.

Tira, hurrengoan beharko du, baina orduan Euskal Herrian -edo inguruan- dauden presoak gartzeletatik ateratzeko egin beharrekoak bildu beharko dugu, zeren, nor konformatzen da presoak Euskal Herrian egoteaz bakarrik? Iraganari eta orainari begiratu ezkerro asko da, duda barik. Baina etorkizunari begira ez da ezer, guk etxean gura ditugulako, libre, eta Euskal Herriarentzat ere beste esanahi bat eta egoera bat suposatuko duelako.

**X. LETONA**

I  
R  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

Ferrerias kalea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 56 11

Memesa  
79 42 22



ARRASATEKO UDALA

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikeme Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



Azala: Goio Arana

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE  
Tfnoa: 79 52 50

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tfnoa: 77 13 78

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

.....  
**Auzo-Laguni**

“Auzo-Lagunek zerbitzen ditu hiri-herri edo auzo, egiten duen lana ez al da pozik hartzekoa oso? bere-gain hartzen duen lanari, beti gogotsu eraso; jan eta edanaz ase ta hainbat kristauren bihotzak jaso.

Maiatz hilaren lehenbizikoa, nola langile eguna den, nonbait aurretik jakingo zuten asko beharko zela han; izugarrizko merkantzia bat Iruña zuten eraman; sei mila eta bostehun pertsoneri bazkaltzen zioten eman.

**JOXE MANUEL ARRIOLA**



**Publizita berria ARKOn**

Lankide berria daukagu ARKOn, Kaittin Allende. Publizitate sailean lan egin beharko du eta dagoneko hasita dago San Juanetako ale berezia prestatzen. Beraz, oraindik ezagutu ez duzuen dendariak izango duzue horretarako aukera.

**Gutunen araudi berria**

Erredakziora iristen diren gutunetan ematen diren iritziak balio handiagoa izan dezaten eta arazorik sortu ez dadin, gutunetako sailean araudi berria ezarri dugu.

Edozein gutun argitaratu ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko ditu nahi eta nahiez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde-izena onartuko da.

- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara.

- Anonimo, gaitzizenez edo inimizatez datozenak ez dira argitaratuko.

- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako ordenan kaleratuko dira gutun guztiak.

- Gutun iraingarriak ez dira argitaratuko.

- Egilea bera dela egiaztatzeke, gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harremanetan jartzeko modua adierazi beharko du bertan. Telefono zenbakia nahikoa da

Maiatzak 31 eta ekainak 1  
Donostiako Miramar jauregian

**euskal kom**

PRENTSA JARDUNALDIAK

Informazioa eta izen-ematea:

Maiatzaren 20tik 28ra  
300 222 telefonoan  
Hegoaldetik 943 aurrezenbakia  
Iparraldetik 19-34-43  
aurrezenbakia

# Komunikabideak objetiboak dira?



**Ana Errasti**  
**Irakaslea**  
**(32 urte)**

Gehienak ez, baina akaso bateren bat egongo da. Nire ustez komunikabideek badute eraginik gizartean eta baita boterea ere. Jendeak irakurtzen duena sinisten du, eta besterik ezean hori sinisten dute.



**J. Carlos Almeda**  
**Margolaria**  
**(26 urte)**

Beharbada objetiboagoak izan daitezke, baina gehienak objetiboak dira. Nire ustez telebista da objetiboena, egunkariak baino gehiago.



**Basilisa Lizaur**  
**Etxekoandrea**  
**(76 urte)**

Komunikabideak ondo daude jendea jakinaren gainean egon dadin. Baliteke gizartean eragina izatea. Norberaren izatea nolakoa denaren arabera batzuk alde batera samur egiten dute.



**Jose Antonio Alberdi**  
**Langilea**  
**(45 urte)**

Gehienak ez dira objetiboak. Gizartean eragina dute eta baita boterean, edo botereak komunikabideengan. Objetiboena prentsadela uste dut.




**Almudena Bragado**  
**Etxekoandrea**  
**(24 urte)**

Objetiboak eta eraginkorrak dira. Nik ideiak argi dauzkat baina batzuegan eragina izango dute. Niretzat telebista da objetiboena.



**Jone Arrieta**  
**Ikaslea**  
**(18 urte)**

Orokorrean ez baina batzuetan bi egunkari irakurri eta esaten duzu: zer da hau? Botereak komunikabideengan eragiten du eta gero komunikabideek guregan. Beharbada telebista eta irratia dira objetiboena.



**Pedro Mertxan**  
**Langilea**  
**(41 urte)**

Komunikabideak nork menperatu ba horrelakoak izango dira. Pertsona jakin batzuen interesdako dira objetiboak. Telebista da objetiboena.



**Ramon Elortondo**  
**Langilea**  
**(30 urte)**

Nire ustez ez dira objetiboak. Komunikabide bakoitzak bere ideologia du eta horren menpe daude. Komunikabideak jendea manejatzeko erabiltzen dira.

*Dena taila  
handietan!*

# Merche

moda

Erdiko Kale, 19  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 17 92

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. ....79 53 00  
 Iguatorialdea .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 .....77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 .....79 78 44  
 .....79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 24**

Egunez eta gauez: Amezua. Santamaina.

**Larunbata 25**

Gaueko 10ak arte:Español. Iturriotz.

**Igandea 26**

Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

**Astelehena 27**

Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerías.

**Asteartea 28**

Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

**Asteazkena 29**

Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

**Osteguna 30**

Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

**24 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Mary Reilly" 7etan eta 10etan.

• **PIANO ETA FLAUTA KON-TZERTUA**  
 Arrasate Musikaleko areto nagusi-  
 an arratsaldeko 6.30etan.

• **ATLETISMO TALDEAREN BATZARRA**  
 Atletismo taldeak urteko batzar  
 orokorra egingo du arratsaldeko  
 7etan Monterronen.

• **RAULY ZIRKOA**  
 Arratsaldeko 7.30etan Musakolako  
 gasolindegia-  
 ren ostean.

• **MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN**  
 Benasque-Anetora ostiraletik  
 domekara arteko mendirte-  
 era. Autobusa arratsaldeko  
 4etan irtingo da Gari-  
 baitik.

• **AL-ANDALUS KULTUR ASTEA**  
 Arratsaldeko 7etan Sueños de  
 Andalucía taldearen em-  
 naldia. 7.30etan "Al-Anda-  
 lus Coro Rociero" taldea.  
 8.30etan poesia emanaldia.  
 9etan gau flamenkoa.

**ERAKUSKETA MONTE-  
 RRONEN**

**Ekainaren 2ra arte  
 Famili eta Gizarte  
 Hezketarako zentruko  
 ikasleek egindako  
 lanak ikusgai Monte-  
 rronen. Ordutegia:  
 egunero 6etatik 8ak  
 arte. Larunbatetan eta  
 jaiegunetan 12etatik  
 2ak arte eta 6etatik  
 8etara.**

**25 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Las Vegas" 5etan, 7.30etan eta  
 10etan.

• **JUBILATUEN EGUNA**  
 Goizeko 12.30etan meza San  
 Juan elizan. 1.45etan Gari-  
 bai kaletik kiroldegira auto-  
 busaren irteera. 2etan baz-  
 karia. Arratsaldeko 4etan  
 sari banaketa.

• **52ko KINTOEN BAZKARIA**  
 Eguerdiko ordubatean meza San  
 Frantzisko elizan. 2.15etan  
 bazkaria Musakolako hos-  
 talean.

• **ZIRKOA**  
 Arratsaldeko 5etan eta 7.30etan  
 Musakolako Gasolindegia-  
 ren ostean.

• **AL-ANDALUS TALDEAREN KULTUR ASTEA**  
 Goizeko 10etan futbito txapel-  
 keta. 6etan sari banaketa.  
 7etan Garcia Lorca antzer-  
 ki taldea. 9etan poesia ema-  
 naldia. 9.30etan jaialdia.

• **KONTZERTUA PARROKIAN**  
 L'Orfeo de Sants Kataluinako  
 abesbatzatzen kontzertua  
 Parrokian gaueko 8etan.  
 Goikobaluk antolatuta.

• **DANTZA IKUSKIZUNA**  
 Mar Gomezen "La nostalgia del  
 pepino" dantza ikuskizuna  
 gaueko 8etan Amaia antzo-  
 kian. Sarrera 800 pta eta gaz-  
 te txartelarekin 600 pta.

• **MENDEKOSTETAKO BIJILIA**  
 Meza Udala bideko Kontzeziño  
 komentuan gaueko 9etan.  
 Kotxea ez dutenentzat auto-  
 busa arratsaldeko 8.30etan  
 eta 8.45etan Garibaian.

• **KAKITZATEK ANTOLATUTA-KO MANIFESTAZIOA**  
 "Militarrek eta kode penal berriak  
 bilusik utzi nahi gaituzte"  
 lemapean manifestazioa  
 Donostiako Bulebarrean.  
 Kakitzatek antolatuta.

**26 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Las Vegas" 5etan, 7.30etan eta  
 10etan.

• **ZIKLOTURISTEN IRTEERA**  
 Ibilbidea: Arrasate, Udana gai-  
 na, Legazpia, Urretxu, Aiz-  
 purutxo, Azkoitia, Azkarate  
 gaina, Elgoibar, Maltzaga,  
 Eibar, Karabieta gaina, Elge-  
 ta, Bergara, Arrasate. Guz-  
 tira 90 kilometro. Irteera goi-  
 zeko 9.15etan Monterro-  
 ndik.

• **ZIRKOA**  
 Arratsaldeko 5etan eta 7.30etan  
 Musakolako gasolindegia-  
 ren ostean.

• **IBILALDIA TRAPAGARANEN**  
 AEDk autobusa antolatu du.  
 Autobusa goizeko 9etan Zal-  
 dibartik.

**EMAKUMEAREN  
 SAILEKO OHARRA**

Emakumearen sailak 1996rako  
 dirulaguntza eskaerak aurkez-  
 teko baldintza eta epeak kale-  
 ratu ditu. Bete beharreko bal-  
 dintzak: Arrasateko herrian buru-  
 tuko diren plangintzak-ekin-  
 tzen beñri ematea. Irabazizko xede-  
 rik ez izatea. Planifikaturiko ekin-  
 tza desberdinak aurrera era-  
 mateko behar adinako azpiegi-  
 tura izatea. Lehentasunak: Ema-  
 kumearen egoerarekin lotuta,  
 urte osoko plangintza jorratzen  
 dituzten eskaerak. Gizarteko  
 maila desberdinak, emakume-  
 aren partaidetza eta aukera ber-  
 dintasuna bultzatzen dituzten  
 ekintzak. Aurkezteko epea ekai-  
 naren 21ean eguerdiko ordu-  
 batean amaituko da.

**27 ASTELEHENA**

• ZINEA

"Las Vegas" 7etan eta 9.30etan.

**28 ASTEARTEA**

• ZINEA

"Las Vegas" 7etan eta 9.30etan.

• SENIDEEN ELKARTELADA

Seberon arratsaldeko 7etan enkartelada. Senideakek antolatuta.

**30 OSTEGUNA**

• ZINEA

"Moonlight" 7etan eta 9.30etan.

• ZINE KLUBA

"Un hombre mirando al sudeste". Gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Prezioa 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.

**ESKORIATZA-ARRASATE KROSA**

Arrasate atletiko Arrasate-kirolak taldeak ekainaren 2rako domeka Eskoriatza-Arrasate krosa antolatu du. Lasterketak 8 kilometro eta 400 metro izango ditu. Irteera eguerdiko 12etan izango da Eskoriatzatik eta 12.25etan bukatu Arrasateko plazan. 16 urte gorako edonork har dezake parte. Izena emateko NAN aurkeztu beharko da.

**AEKANPADA**


Maiatzaren 31tik ekainaren 2ra Dimako aireportu zaharrean AEKanpada festa ospatuko da. Era guztietako ekintzak izango dira goizetik gauera arte. Dantzaldiak, kontzertuak, txapelketak... denetarik.

**80 URTEKO AITON-AMONENTZAT OHARRA**

80 urtetik gorako guztxei gogora arazten diegu datorren ekainaren 24an Udalak herriko aiton-amonei omenaldia eskainiko diela. Bertan parte hartu nahi izanez gero, izena emateko epea zabalik dago. Izena emateko behar beharrezkoa da Nortasun Agiria aurkeztea. Udaletxeko idazkaritzan eman behar da izena ekainaren 14a baino lehen.

**EZINDUEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA**

Ezinduei zuzendutako banakako laguntzen eskaera egiteko epea zabalik dago datorren ekainaren 9a arte. Informazio gehiago lortzeko Udaletxeko Gizarte Zerbitzu Sailean edo 79 90 00 telefonora deituta.



**AHOZ AHO ERAKUSKETA**

**Ahoz Aho** belaunez belaun erakusketa Harresi aretoan ekainaren 2a arte. Ordutegia: astegunetan 6etatik 8ak arte. Larunbatetan eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8ak arte.

**"EDERTU"**

ileapaindegia eta solarium-a



San Andres auzoa • Tfnoa: 79 04 28 ARRASATE

**ARGI PLASTIC**

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Zigarrola, 1-8 pabilloa • Tfnoa: 77 11 30 ARRASATE

“... Bestetik, ez da falta azken hau una universidad de peritos deitu duenik. Kalifikatibo horrekin zera adierazi nahi da, erakunde berriko bultzatzaileek ez dutela behar adinako mailarik unibertsitate izena merezi ahal izateko. Egia esan, gerta daiteke Arrasateko egitasmu berria gehiegi atxikitzea bere hurbileko errealtaterara eta alboratuta gertatzea edozein unibertsitatearen oinarritzko funtzioetako bat, oinarritzko ikerketa alegia. Era berean, aipatzen da ingenierritzak eta ekonomia ikasketek erabateko garrantzia dutela eta unibertsitate batek letretako ikasketak behar dituela benetako unibertsitate izateko. Kritika horiek badute bere egia zatia, baina ezagutuz Arrasateko ikerketa guneen kalitatea, ez dirudi arrisku horiek beteko direneik, ikasketa nagusietan bederen”.

**Mikel Aizpuru**, 1996-5-17,

**Egunkaria**

“Auzolagunen... 1978an izango zen. Tresneriaren mantenimendu lanak egiteko pertsona bat behar genuen eta... badakizu, gizonezkoa behar. Zergatik ez emakumezkoa? Bada seguraski rol banaketa horrelaxe egina daukagulako gizartean. Gizonezkoek era honetako lanbideak, emakumezkoek halakoak. Baliteke, bestetik, sasoi hartan ez izatea lan horretarako behar hainbateko prestakuntzarik zuen emakumerik”.

**Mari Karmen Yarritu**, 1996-5-19.

**ARGIA**

“... Euskadin abertzaleok botoak galtzen ditugun bitartean Galizan aparra bezala igotzen ari dira.


Eta egoera honen aurrean neure buruari behin eta berriro galdera berbera egiten diot. Euskararen alde eta militarismoaren aurkako kanpainetan akordio puntu batzuetara heldu eta aurrerapausuak emateko gauza bagara, ez al da posible berdin egitea Euskadiren baketze eta askatzearekin”.

**Pello Urizar**, 1996-5-21.

**egin**

## Zer ekarriko du kode penal berriak eta noizko Arrasate EUDIMAn?

**K**ode penal berriaren helburu bakarra jendea beldurtzea da, eta horretarako zigor neurri gogorragoak finkatu dira. Lehen, soldadutzari eta ordezkotzari uko egiteagatik, bi urte lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezartzen zen. Kode penal berriarekin, ostera, ordezkotzari uko egiteagatik hamar eta hamabi urte arteko inhabilitazioa ezartzen da. Horrez gain, soldadutzari ere uko eginez 10 urte arteko inhabilitazioa eta bi urte arteko kartzela.



**Mikel Beitia**  
*Arrasate Antimilitarista taldeko partaidea*

Inhabilitazioak esan nahi du ezin dugula administrazioarekin lotuta dauden tokietan lan egin, eta bestalde, ezingo dugula hainbat laguntza publiko jaso. Administrazioan lana egiteko aukerarik ez izatea gogorra da, kontuan izaten badugu gaztea zarenean duzula lana aurkitzeko aukera gehien. Hamar urte inhabilitatua egotea oztopoa izango da lana aurkitzeko.

Arrasateko Udala ere Eudiman (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatean) sartzeko helburuaz, astean elkartearen estatutuak bidali dizkiegu Udaleko alderdi guztiei. Bidali diegun gutunean Mankomunitate horretan sartzeko aukera azter dezatela eskatzen diegu, eta ondoren plenora eramango dugu gaia mozioa aurkeztuz. Eudimaren helburu nagusia Euskal Herri ez militarizatu batera iristea da, eta horretarako, intsumisioa bultzatzeaz gain, intsumisioei ahalik eta laguntza handiena ematen saiatuko da.

**HONELAKO ERRENTAGARRITASUNAK,  
3 EDO 5 URTEAN BEHIN EMATEN DIRA**

**Errentagarritasun bermatua 3 urtetan**

**% 25**

**Errentagarritasun bermatua 5 urtetan**

**% 48**

MIKEL LASA Aseguru Artekaria, S. A. Maalako Errabala, 33-behea - ARRASATE - Tfnoa: 79 69 00 - Faxes: 77 10 74

**BANKINER**

**A G E N T E A**

Lor itzatzu Bankinter Aurrezki Seguru Kontu bat irekiz. 500.000 ptako inbertsio batetik hasita, 3 eta 5 urtera %25eko (%7,70 TAE) eta %48ko (%8,00 TAE) errentagarritasuna bermatzen du.

Errentagarritasun biek ez dute errenteziorik eta Inbertsio Fondoetarako gordetzen diren abantaila fiskalez baliatzen dira, era horretan Bankinter Aurrezki Seguru Kontua oso gutxitan eskaintzen den aukeretatik batean bihurtuz, baina zuk orain guri deituz edo gure bulegoetara etorri zaitzazu.

Bizitza-Aurrezki Asegurua denez, adinaren arabera aldaketa txikirekin bat egon daiteke errentagarritasunetan. Hemen aipatzen ditugunak 50 urteko pertsonen dagokienak dira. Adin nagusiagokoei buruzko informazioa jasotzeko kontsulta egiguzu arren.



**Bi bonba abisu**

Joan den zapatu gauean bi bonba abisu jaso ziren Ertzandegian. Lehenengoak, Musakolako herri eskolaren inguruko zaka-rrontzi batean bonba bat zegoela jakinarazi zuen. Bigarren batek, berriz, bonba Aramaioko herri eskolaren inguruan zegoela esan zuen. Ertzantza bi toki horietara joan zen baina ez zuen ezer susmagaririk aurkitu.

**Kontzentrazio isila**

Kordoban hil zuten sarjentuaren alde eta hilketa salatzeke, kontzentrazio isila egin zen asteartean. Ohi moduan Herriko Plazan bildu zen hainbat arrasatear, eta hamabost minutuz euren gaitzespena adierazi zuten. Borobil bat osatuz egin zuten kontzentrazioa.

**Bikain "Nueva Zaragoza Herritarrak"**

Berrehun lagunetik gora hurbildu ziren Amaia antzokira zapatuan, "Nueva Zaragoza Herritarrak" antzezlan ikustera.



**Fagorren Batzar Orokorra**

Aurreko asteetan kooperatiba bakoitzak banan-banan batzarrak egin ondoren, asteartean Fagor taldeak 95eko iharduerari buruzko batzar orokorra egin zuen. Hasieran jarritako helburu guztiak bete ez ziren arren, 95a nahiko urte ona izan zen eta Fagorrek irabaziekin bukatu zuen. Arduradunen esanetan, Fagor Elektronikaren, Automotioen eta Arrasateren errekupeazioa izan dira datu aipagarriak. Aurrera begira, irabaziak gehitu eta lanpostuak sortzea espero du Fagorrek.

Ikusleak pozik atera ziren antzokitik, antzezleak ondo aritu ziren eta. Antzezleak ere oso pozik azaldu ziren egindako lanarekin, eta beste herriren batean antzezteko aukera aztertzen ari dira. AEDK antolatutako antzerki tailerrean prestatu dute antzerki obra, Jose Martin Urrutiaren zuzendaritzapean.

Zabortegi batean bizi diren gazte batzuen istorioa kontatzen du antzerki obrak.

**Senideak-en enkarteladara Ertzainak azaldu**

Joan den asteartean, Ertzantza agertu zen Senideak-ek Seberon egiten duen enkarteladara. Autoendako bidea mozten zeudela

eta, ekintza bertan-behera uzteko eskatu zien Ertzantzak. Arrasateko alkateak, enkartelada egiteko aukera plenoan onartu zela eta beraz, guztiz legekoa dela esan zuen. Ondoren, Ertzainek alde egin zuten.

Orain dela hainbat urte egiten dute Senideak-ekoek presoen eskubideen aldeko enkartelada Seberon.

**JAIOZKAK**

- Enaitz Sagasta Casales. Maiatzaren 7an.
- Irune Lete Azpilikueta. 8an.
- Iker Pais Moita. 10ean.
- Julen Barandiaran Maidagan. 12an.
- Julen Unanue Sebastian. 14an.
- Mikel Arizmendiarieta Narbaiza. 15ean.
- Julen Alberdi Sainz. 16an.

**EZKONTZAK**

- Jose Manuel Gorosabel Azurmen- di eta Miren Murumendiaratz Elgoi- bar. Maiatzaren 4an. Elizatik.
- Francisco Javier Lopez Balanzate- gi eta Mari Luz Zufiria Urzelai. 11n. Elizatik.

**HILDAKOAK**

- Luciana Otxoa Abarrategi. Maiat- zaren 15ean. 73 urte.
- Justa Gonzalez De la Fuente. 18an. 94 urte.



*Kalitate gorena leihuetan.*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

**ARRASATE**  
a holkularitza

Orain, Erdiko kalean  
gaude!

Erdiko kalea, 32 - 1. I  
Tfnoa: 79 01 47  
ARRASATE



\* Nati Sanchez

## Hezkuntza eta psikomotrizitate praktika

**O**tsailean Gasteizen "Psikomotriz Praktikari buruzko III. Jardunaldiak" burutu ziren 350 lagunengatik partaidetzarekin. Zoritxarrez oso oihartzun txikia izan dute komunikabideetan, nahiz eta bertara joateko gonbidapena luzatu zitzaizen.

Lan-esparru interesgarri honetan jarduten dugun profesionaloi, haurraren garapen integrala ulertu eta lagundu ahal izateko, Haur Hezkuntzan ezinbesteko jardueraren Psikomotrizitate Praktikari buruz sakontzeko aukera eskaini digute Jardunaldiok; jarduera hori, beraz, hezkuntzaren eginkizun globalean sartu behar da.

Arlo honetan erantzukizunak ditugunok ondotxo dakigu zein garrantzitsua den haurrari bere osotasunean

adierazten uztea. Dena dela, hezkuntza-programetan leku gehien ahozko adierazpenari eskaintzen zaio, praktikan psikomotrizitatearen garrantzia gutxietsita, batik bat Haur Hezkuntzan.

Bernard Aucouturier irakasleak esaten duenez, "haurraren zailtasunak adierazpenaren bidez ikusten dira eta, horregatik hain zuzen ere, garrantzitsua da bere historia espazioan proiektatzen irakastea. Mugimenduak hi-

.....

*"Ezinbestekoa da hezkuntzako psikomotrizitate praktika, beharrezko baldintza eta jarrera-sistemari buruzko prestakuntza jasotzea"*

tzei lagundu behar die. Hezitzaileak eskolan ziurtatu behar du praktika hau. Horretarako prestatuta egon eta mugimendu bidezko adierazpena bezain garrantzitsua dela jakin beharko luke.

Egia da hezitzaile askok psikomotrizitate praktika egiten dutela ikasleekin, baina sarri askotan hori zer den argi izan gabe, hau da, euskarri teoriko egokirik gabe eta esperientzia pertsonalik gabe. Nire iritziz, ikastetxeetan psikomotrizitateari buruzko saiok egiteko, ez da nahikoa borondatea. Ezinbestekoa da hezkuntzako psikomotrizitate praktika, beharrezko baldintza eta jarrera-sistemari buruzko prestakuntza jasotzea eta praktika hau egiten duen pertsonak hori burutzeko teknikak jakitea.

Baldintza horiek beteta baino ezin zaio errendimendu osoa atera ondo eginez gero eskola-dinamikan sakonki eragiteko ahalmena duen jakintzagai honi.

Erreformaren ezarpena aukera aparta da Haur Hezkuntzari haurraren garapen integralean duen garrantzia emateko eta horren barruan Psikomotrizitateari dagokion lekua eskaintzeko.

Horretarako, administrazioak hezkuntza-etapa honetako hezitzaileei zuzendutako Prestakuntza-markoak eskaini behar ditu.

\* BERGARAKO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLAKO KOORDINATZAILA

## USTEAK USTE

### KOHERENTZIA

Lehengoa autoan nindoala irratia piztuta neraman eta bertan Jonan Fernandez Elkarriko buruari entrebista egin zioten. Besteak beste esan zuen esaldi batekin geratu nintzen. Zera zioen: **Bi urteko epea ematen diogu Elkarriren proiektuari, ordurako emaitza hobek ez baditugu, elkarte bezala desageretzea planteatu dugu.**

Ez nahiz ni Elkarriri buruzko iritzia ematen hasiko. Esaldi hori geratu zitzaidan eta horri bueltak ematen hasi nintzen. Emaitzik ez bada desagertu!

Azken urte hauetan egin duten ahalegina ezerezean gera daiteke lurralde santu honetan gauzak dauden bezala daudelako. Esaldi horrek nere ustez izugarriko koherentzia kutsua du. Emaitzak onartu eta beste batzuei paso eman.

Gizona gizona denetik lortu izan dituen gauzei gutxitan egin dio uko, lortutako estatusetik nekez jeisten da hurrengo mailara. Elkarrikoek hau onartzearen koherentzia dutela dirudi, etsi behar denean etsi egin behar dela eta ez patata mozorroa bezala bueltaka-bueltaka ibili jendea nekatzen, eskuartean zer, eta pakea dutela gainera.

Desagertzea erabakitzen badute, mezu garbi-garbi bat botako diete bai politikoei eta baita botereaz gozatzen duten guztiei.

Garaile ateratzen da momentu egokian erretiratzea erabakitzen duena.

ION ALDANONDO

**beatriz**  
oinetakoak eta poltsak  
Erdiko kale, 11  
Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**TXOKO  
TABERNA**  
Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak



Asteartean prentsaurrekoa eman zuten Arrasateko Elkarriko tailerrak.

## Elkarri: "Positiboa da iritzi desberdinekoei entzutea"

Bide onetik doaz Elkarriko tailer lokalaren ekimenez herrian egiten ari diren foroak, Arrasateko tailerreko partaideek asteartean esan zuten bezala.

Euskal Herriko gatazkaren inguruan dauden iritzi desberdinen topagune izan nahi duten foroetan, sentsibilitate desberdineko jendea ari da parte hartzen. Elkarriko tailer lokalean dihardutenen berbetan, "iritzi desberdinak plazaratzen eta entzuten ari dira foroetan, eta hori oso positiboa da. Foroetan parte hartzen ari direnak, gainera, pozik daude orain arte egindakoaz". Arrasateko foroan 16 lagun batzen dira, eta dagoeneko

hiru bilera egin dituzte. Gaia diskrezioz eraman nahi dutela eta, ez da jakinarazi foro horietan zehazki zertaz hitzegin den. Ekainean lehen faseko azken foroa egingo da, eta taldeak horrela erabakiz gero, baliteke adostutako ideia batzuk plazaratzea.

Asteartean emandako prentsaurrekoaren bidez, datozen bi urteei begira herrian eta nazio mailan giza mugimenduak aurrera eramango dituen ekintzak azaldu zituzten. Bestalde, Elkarriren egoera ekonomikoa ez dela ona eta horregatik, maiatzaren 28an arrasatearrei laguntza eskatzeko buzonaketa egingo dutela jakinarazi zen.

## "Arbe" atxilotu eta aske utzi

Eugenio Barrutiabengoa "Arbe" arrasatearra atxilotu zuen Interpolek astelehenean Caracasen. Espainiako gobernuaren aginduz atxilotu zuten 40 urteko arrasatearra. Barrutiabengoa orain dela 12 urte deportatu zuten Venezuelara, eta ordutik han bizi zen. Atxiloteta era irregularrean egin zela eta, asteartean aske utzi zuten Eugenio Venezuelako agintariek. Venezuelako iturriek jakinarazitakoaren arabera, Interpolek atxilotu zuen arrasatearra eta horiek ez du Venezuelan atxilotetarik egiteko kompetentziarik.

## Autobusendako dirurik ez

Udalak ez du onartu, Guraso Elkarriak eskatutako dirulaguntza. Eskola publikoen jaira joateko erabili zituzten autobusak ordaintzeko dirua eskatu zuen Guraso Elkarriak. Orain arte horretarako laguntzarik eman ez denez, eta horrelako jaietara joatea norberak borondatez erabakitzen duela uste denez, Udalak dirurik ez ematea erabaki du.

**DEGABEHIBA  
SURADESA**



DEBA GARAIKO BEREONERATZEKO HIRIGINTZ BALTZUA  
SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACION DEL ALTO DEBA

**Etxeko berritze-lanen eta erosketen dirulaguntzen gestioa.  
Doaneko zerbitzua.**

Publikorako ordutegia: Astearte eta ostiraletan, 9etatik 13etara.

Arrasate Pasealekua, 5-behea (Mankomunitate barruan, San Viator parean).

# Altamirazpiko etxeak hipotekatuta eta inguruak urbanizatu barik

Hamabost eguneko epea eman dio Udalak Giro-Leku eraikuntza enpresari, Altamirazpin egin gabe utzi dituen urbanizazio lanak egiten has dadin. Epe hori pasa eta Giro-Lekuk obrak bukatzeko asmorik ez duela ikusten bada, Udalak bukatuko du urbanizazioa baina Giro-Lekuk utzitako abalaren kontura.

Altamirazpin hiru etxe eraiki ondoren, egiteke utzi diren urbanizazio eta saneamendu lanek 6.205.000 pezetako kostua dute. Urbanizazio lanen kostua Udalean utzitako abalarekin estaliko da, eta gainontzekoa Bergarako epaitegiaren esku geratuko. Giro-Leku beste ba-



Hamazortzi etxebizitza eraiki ditu Giro-Lekuk Altamirazpin.

tzuekin ere zorretan dagoenez, soberan geratzen den kopurua horiei ordaintzeko erabiliko du Bergarako epaitegiak.

Altamirazpiko etxeek ez dute amaiera onik izan, urba-

nizazioaz gain Giro-Leku promotoreak etxeak hipotekatuta utzi ditu eta. Etxebizitzaren erosleek %80a ordainduta eta giltzak eskuetan zituztela, etxeak eskrituratzea eskatu

zuten baina ezin izan zituzten eskrituratu, promotoreak Kutxarekin zor handia duenez Kutxak etxe guztiak hipotekatuta ditu eta. Horrez gain, etxeen eraikuntzan parte hartu duten beste batzuekin ere zorretan dago promotorea. Etxebizitzetako jabeak Altamirazpiko etxeetan bizi dira, baina eskriturarik gabe. Bitartean, auzian murgilduta dauden aldeek negoziatzen hasteko asmoa dute, eta Giro-Lekuk ondasun batzuk dituzenez diru zorra gutxituko dela espero da.

Altamirazpiko etxeak egin aurretik, Larrea plazan 100 etxebizitza egin zituzten Giro-Lekuk eta hango gestioa ere ez zen ona izan.

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
CRISTOBAL  
ESTOMBA  
GOMEZ  
MURGIENDO  
OTALORA  
RUIZ



**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**



Bergarako Udaletxean egingo da aurrekontuak onartzeko bilkura.

## Mankomunitateak 601 milioi zertan gastatu erabakiko du

Datorren asteazkenean 96ko aurrekontuak onartzeko bilkura egingo du Deba Garaiko Mankomunitateak, eta ezustekorik ez bada, aurreko bilkuran aurkeztutako aurrekontuek aurrera egingo dutela uste da. Asteazkenean Bergarako Udaletxean egingo den bilkuran hala ere, aldaketa proposamenak egiteko aukera izango dute Mankomunitateko ordezkariak.

Aurten 601.250.700 pezetako aurrekontua izango du Mankomunitateak, iaz baino 194 milioi gutxiago. Eskualdeko garapen agentziarako askoz ere diru gutxiago zuzenduko

delako estutu da aurrekontua. INEMekin hitzarmena sinatzea aurreikusi zela eta, iaz agentzia horretarako kopurua asko gehitu zen baina aurten 410 milioikoa izango du. Garapenerako agentziak aurten ere ohiko programekin jarraituko du, baina horrez gain, emakumeendako lanbide etxea antolatzeke asmoa dago. Bestalde, Enpresa Ekintzetarako Zentroa 97an bukatuko bada ere, aurten enpresa ekimen batzuk eratuko direla eta, horiei txoko bat egingo zaie Zaldibar ikastetxean. Iaz jarri asmo ziren turismoarako puntuak, berriz, ekainean jarriko dira.

## Plenorako emendakinak prestatzen

Maiatzaren 31n, hurrengo ostiralean, aurrekontuak onartzeko plenoa egingo denez, emendakinak prestatzen ari da gobernu taldea. HBk eta EBk gutxigora behe-ra 40 emendakin egin dizkiete hirukoaren aurrekontuei. Horrez gain, bakarka ere aurkeztuko dituzte HBk eta EBk emendakin batzuk. Ezusterik ez bada EAJren, PSE-EEren eta EAren aurrekontuak onartuko dira plenoan.

## Juan Joxe Etxabe Hendaian atxilotu

Asteartean Juan Joxe Etxabe arrasatearra atxilotu zuten Iparraldean beste hiru lagunekin batera. Azken hiru horiek asteazkenean aske utzi bazituzten ere, albistea idazterako orduan Juan Joxe Etxabe atxilotuta zegoen Hendaiaiko Poliziaren egoitzan. Atxilotuta Laurence Le Verte epailearen aginduz egin zen. ETaren finantzetan eta diru zurizetan parte hartzea leporatzen diote Etxaberi.



# URONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



**Zigarrolako Gazte Txo-koak** ping pong txapelketa antolatu zuen ostiralean. 40 lagunek

hartu zuten parte eta guztien artean onenak Bixen eta Jorge izan ziren. Zorionak bikote!



**Musakolako jubilatuek mus, briska eta tute txapelketak** izan zituzten. Ostiralean berriz irabazleek sariak jaso zituzten Kataide jatetxean izandako afariaren ondoren. Irabazle ugari agertzen da argazkian eta izenak honako hauek dira: Pakita Arando, Cecilia Maskarrano, Rufino Altuna, Ramona Abarrategi,

Marcelo Jauroso, Mikaela Murua, Marcelino Merino, Francisco Fradejas, Aureo Bartolome, Santos Barbarin, Juan Merchan, Justiniano Velasco, Anastasio Corres, Leon Madinabeitia eta Juan Urrutia. Nagusietan bi sari eder Pablo Arizabaleta eta Maria Nogalesek jaso zituzten.



**Musakolako jaietan Eusebio Gomezek eta Rafa Jaurregik Urrezko Astokiloak** izateko ohorea izan dute aurtan, jaiak antolatzen eman duten laguntzagatik. **Biak pozaren pozez daudela esan digute, izan ere horrelako titulorik ez da egunero jasatzen.**



**Musakolako Herri Eskolako** gaztetxoek kultur astea zela aprobetxatuz primeran pasa zuten San Isidro egunean. Aurpegiari morrozoa

jarri, eskuan makilak eta gerrian tanborra hartuta kaleak giroten ibili ziren tanborradaren soinuz. Alboetan berriz, gurasaok adurra zeriela.



**Oñatiko barnetegian euskara ikasten** dabilen hainbat lagun bisitari etorri zen ARRASATE PRESS eta Telebistara. Administrazio publikoan lan egiten dute eta gasteiztarrak dira. Egia esateko asko gustatu zitzaizen bertan ikusitakoa eta beste bisita bat egiteko asmoz agertu ziren. Zain egongo gara!



**Lorentzo Urrutiak eta Mercedes Garrok azken urteetan bezala, Musakolako baserritar zaharren saria jaso zuten San Isidro egunean. Mercedesek lore sorta jaso**

**zuen eta Lorentzok beste sari dotore bat. Hunkituta egon ziren biak eta datorren urtean ere baserritarren eguna ospatuko dutela diote.**



*ONCE Fundaziok urtero antolatzen duen Eskolarteko lehiaketaren XII. edizioan La Merced ikastetxeko talde batek 2. saria lortu zuen. Nagore Ipiña, **Maria Gutierrez, Maite Madinabeitia eta Garaitz Korta** dira sarituak. Garaitz ez dago argazkian.*

## IZEN PROPIOAK

● **Leire Solupe**, 25 urteko arrasatearra San Juan jaietako kartelaren irabazlea da. 15 kartelen artean onena Txafles lemapean aurkeztutakoa izan zen. Leirek diseño grafikoa ikasi du eta ordenagailuen bidez egituratu du aurreko jaiak iragarriko duen kartela. Irabazlea izateagatik 100.000 pezetako saria jasoko du.

● **Jon Sarasua**, 30 urteko atxabaltarrak "Bi begiratu Euskarazko kazetari hizkerari" tesia aurkeztu zuen ostiralean Leioako Unibertsitatean. Cum Laude kalifikazioa eman diote Joni.

● **Jesus Mari Barrutiabengoa**, Mondrako entrenatzaile berria da. Jesus Mari arrasatearra da 33 urte ditu eta Mendaroko ospitalean egiten du lan. "Txiu" gaitzizenez ezagunagoa den mutil honek denboraldi honetan Oho-rezko liga eta lehen erregionala entrenatu ditu.

### ROBERTO ZABALA ETXENAGUSIA

- Azaleko gaixotasunak
- Dermatokosmetika eta Benereologia

(Lagun-Aro)

KONTSULTA  
BERRIA!

MENDIA JAUREGIA-INSTITUTU MEDIKUA  
Erdiko Kale, 22-1. ARRASATE Tfnoa: 79 72 16

BITXI  
LANTEGIA

**Oskar Vitoria**

ZURE  
GUSTOKO  
BITXIAK!


Garibai, 3 (Iturbide Egoitzaren ondoan) Tfnoa: 77 01 44 • ARRASATE

# UDALEKUAK 96

Haur eskola 1.2.3. maila (3-5 urte)

## BABYLEKUAK

Lagun giroa  
Jolasak  
Ibilalditxoak  
Pizina  
Sorpresak



OHO 1.2.3.4.5.6.7.8. maila (6-14 urte)

## UDALEKUAK ARRASATEN

Txangoak  
Jolasak  
Kirolak  
2/3 eguneko irteerak  
Abenturak  
Sorpresak

OHO 3.4.5.6.7.8. maila (8-14 urte)

## GARAIO ABENTURAZKO UDALEKUAK

Antzerkia  
Piragua Malabarrak  
Bizikleta Gaubelak  
Trabesiak  
Irratia/TB

OHO 6.7.8 maila (11-14 urte)

## ESKUZ-ESKU IPARRALDE-HEGOALDE ELKARTRUKEA

Musika  
Dantza  
Antzerkia  
Txangoak  
Mimoa

Akrobazia  
Malabarrak  
Gaubelak



BBB, FP, REM 1.2. maila (14-17)

## EUSKAL HERRIARI BIRA



Harremanak, Ohitura  
Lekuen ezagutza  
Denda, Festak



Informazio gehiagorako

TXATXILIPURDI. Pablo Uranga, 4 • Tfnoa: 79 54 46



# Zaldibarko Futbito Txapelketa


- *Final Erdiak*
- *Emaitzak eta Sailkapenak*
- *Protagonistak:*  
*Mikel Hierro eta Julio Barbero*

**E**kainaren batean egia-  
ren ordua izango da  
Zaldibarren.  
Bi talde onenek elka-  
rren kontra neurtuko  
dituzte indarrak eta gol  
gehien sartzen duenak  
95-96 denboraldiko  
txapelketa irabaziko  
du. Egun hori heldu  
baino lehen final erdiak  
jokatu behar nahi eta  
nahiez. Asteburu hone-  
tan lau talde izango  
dira lehian. Txapelketa-  
ko talde onenak edo  
une erabakiorretan  
hobeto erantzun dute-  
nak. Une honetan  
pronostikoa esatea  
zaila da, bi neurketa  
horietan denetarik  
gerta daiteke eta.



## LENIZ ALUMINIOAK


Bi orriko atea



~~109.000 pta.~~  
101.000 pta.


Orri bateko atea: 73.000 pta.!!!

*Eskatu aurrekontua doan eta konpromezurik gabe.*



**P.V.C.an  
udaberriko  
beherapen  
bereziak!**

Bi orriko leihoa



~~84.000 pta.~~  
76.000 pta.

Orri bateko leihoa: 54.000 pta.!!!

*L*eihoen neurria  
zure beharretara  
egokitzen dugu.  
Mota guztietako  
leihoak ditugu:  
poliuretanoa,  
aluminioa, apurketa  
termikoa...

**Oharra:** Prezio hauetan instalakuntza osoa sartzen da.

Erakusketa eta salmenta: Labeaga kalea, 21 • Tfnoa: 72 49 33 • Urretxu



## Final laurdenak kaxkar samarrak

**F**inal laurdenak izateko neurketa kaxkarrak izan dira astebukaerakoak. Zapatuan Okoretegi taberna eta Totemen arteko partiduan Okoretegi berehala sartu zituen golak eta Totem ez zen gauza izan

partiduari buelta eman eta beste emozio bat jartzeko. Adelaida Haizea eta Arrasate Kirolaketen artekoaz beste horrenbeste esan behar. 6 eta 1 irabazi zuen Adelaidak izerdi asko bota barik. Domekan emozio gehiago egon zen

Zaldibarko kantxan. Partidu onena zalantza barik Cerveceria Leintz eta Fosforosek jokatu zuten. Tentsioak eta urduritasunak azkenera arte iraun zuen. Baina azkenean Cerveceria Leintzek 4 eta 2 irabazi zuen

### Hurrengo partiduak

#### Final Erdiak

#### Larunbata

12.00 Okoretegi taberna - Argi Ibili

#### Igandea 26

12.00 Adelaida Haizea - Cerveceria Leintz

### Emaitzak

Okoretegi tabernak 7 - Totem 2  
Adelaida Haizea 6 - Arrasate Kír. 1

Argi Ibili 5 - Trikiti 3

Cerveceria leintz 4 - Fosforos 2

### Labur

#### ■ EPAILEAK

Final erdietan bi neurketa jokatu dira. Zapatuan 12etako partiduan Unai izango da epailea. Domekakoan Haritz. Erne ibili beharko dira bi epaile hauek eta gertutik jarraitu beharko dute joko arazorik egon ez dadin.

#### ■ MUSAKOLAKO JAIEN ONDORIOA

Uribe Auzoa txapelketan asko igerri da Musakolako jaien bihar ramona. Lau talde ez ziren aurkeztu eta dagoeneko txapelketatik kanpo daude: Killer Barbies, Kamasutra Promesa, Pasteleria Papur eta Creature Feature taldeak.

#### ■ NESKEN FUTBITO TXAPELKETA

Nesken futbito txapelketan liga berezia jokatzen ari dira lau talde onenak. Shaktale, Izenbakuak, Zepaestandon eta Joixon Bertan azken lau astetan lehian arituko dira talde onena zein den erabakitzeko.



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

## Protagonista

### Julio Barbero (Zaldibarko Jarraitzailea)


— Sarritan etortzen zara Zaldibarrera?

— Bai, ahal dudan guztietan etortzen naiz. Asko gustatzen zait gainera. Orohar kirol guztiak ditut gogoko, horregatik etortzen naiz gustora futbitoa ikustera.

— Futbitoaz gain, beste kirolen bat?

— Pilota izugarri gustatzen zait. Gaur bertan finala ikustera joango naiz etxera. Bestalde Iturripera ere joaten naiz Arrasateko pilotarien partiduak ikusteko.

— Zaldibar Txapelketa giro berezia ematen dio herriari?



— Zalantza barik beste bizitasun bat ematen dio. Hemen jende ugari mugitzen da bai jokatzeko eta baita ikusteko ere. Herri osoak du txapelketa honen berri.

— Nola doa txapelketa?  
— Ederto esango nuke.

Gaztetasun handia dago eta giro berezia. Gainera partidu ederrak ikusten dira astebururo.

— Zeintzuk dira talde onenak?

— Nik Fosforos taldearengan konfidantza handia nuen. Finalean ikusten nituen baina gaur ezin izan dute Cervecera Leintzen kontra jokatutako neurketa aurrera aterara. Orain final erditarako geratu diren talde guztiak oso onak dira eta edozer gauza pasa daiteke azken txanpa honetan. Ez naiz finala jokatuko duten taldeen izena ematera ausartzen. Guztiak dituzte aukera berdina.

— Zaldibarren gogorregi jokatzeko da?

— Batzutan bai. Lagun

arteko txapelketa izateko sarrera gogorak eta gehiegizko moskeoak ikusten dira. Hori gertatzen da taldeak irabaztera kantxaritzen direlako eta ez, kirola egin eta ondo pasatzera. Dagoen presioa eta tentsioa kantxan nabaritzen da.

— Bereziki gustatu zaizu jokalariren bat?

— Trikiti taldeko Koldo Agirre oso ona iruditzen zait. Gol ederrak sartu ditu. Esan behar da Zaldibarren gol politak ikusten direla, pena bat da gero errepikatuta ikusteko aukerarik ez izatea.

— Ausartuko zinen bi finalistaren izena esatea?

— Une honetan zaila da, oso talde onak daude eta aukerak guztiak dituzte.

## Protagonista

### Mikel Hierro (Leintz Cervecera)

— Gogorra izan da Fosforosen kontrako partidua?

— Oso gogorra, biok talde onak gara eta maila handia dago azken neurketa hauetan. Azkenean berriz, guk sartu dugu gol gehiago eta final erdietara pasatzea lortu dugu.

— Urduri kantxaratu zarete?

— Bi taldeentzat partidua oso garrantzitsua zen eta jokalariorik urduri samar kantxaratu gara. Guk zerbait egitea nahi dugu txapelketan, urtero goian ibili gara eta urtea borobiltzea gustatuko litzazuke ahal bada txapelketa eskuratuz. Aurten ilusio eta helburu handiekin hasi genuen txapelketa, horrez

gain, hilabeteak aurrera joan ahala gero eta itxaropen handiagorekin gaude.

— Nola joan da norgehiagoka?


— Aurretik jarri gara 3 eta 0. Gero gola sartu dute Fosforosekoek. Penalti bat ere alde izan dute eta azken minutuetan etorri da gure laugarrena. Azkenean Fosforosek 2 Cervecera Leintzek 4.

— Iskanbila txiki bat ere izan da?

— Fosforoseko jokalariek batek sarrera gogorra egin dute gure taldeko bati. Haserretu egin da baina arazoa ez da urrutiago joan.

— Talde faborito bat kalean utzi duzue?

— Bai horrela da. Iaz 3. eta 4. postuak erabakitze



neurketa biok jokatu genuen. Fosforosek garaipena lortu zuen eta hirugarren sailkatu zen. Aurten guri tokatu zaigu txanda eta final laurdenetan kalean utzi dugu Fosforos.

— Geratzen diren neurketak nola ikusten dituzu?

— Oso zailak dira. Adelaida Haizearen kontra joko-

tu behar dugu final erdiak. Gero Okoretegi taberna eta Argi Ibili daude, edozeinek irabaz dezake.

— Txapelketako irabazle ikusten duzue zuen burua?

— Guri gustatuko litzazuke baina ez da samurra izango. Final erdiak pasatzen dituzten taldeek txapelketako onenak dira eta edozeinek lor ditzake beharrezko puntuak txapelketa irabazteko.

— Gero eta jende gehiago harmailetan, horrek badu eraginik?

— Jokatzera kantxaritzen gara eta harmailetan dagoen jendea ikusi arren, gu gurea ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara. Bestalde egia da zenbat eta jende gehiago izan, giroa hobea dela eta hori asko eskertzen da.

# Uribe Auzoko Futbito Txapelketa

**A taldea**

The Barrio 1 - Zutari 4  
 Hirei 1 - Creature Feature 0  
 La Mosca Gao 9 - Patxi eta Txapi 4  
 Los Urracas 3 - Zipote Nukleico 0  
 Pasteleria Papur 0 - Egocentricos 1

**B taldea**

Nuevo taberna 13 - Manchester Fumaited 2  
 Decima Victima 4 - Ale Alee 3  
 Amo Katxis 1 - Kamasutra 0  
 Arrasate Zoo 4 - Elisabeth 0  
 Ganba al whisky 7 - Rayo Batikano 0  
 Pobres Rangers 4 - Eight 2

**D taldea**

Diego Antonio 5 - Gallinero 3  
 Tandem 4 - Power Rangers 2  
 Bortxitxak 4 - Jaleo Bila 7  
 Zig Mutilzaharrak 1 - Zurt 2  
 Borrock Roll Prom 2 - Betrayer 4  
 Cartonajes Igamo 4 - Mikel Lasa Aseg 3

**E taldea**

Racing Molotov 1 - Koka Juniors 0  
 Borrock Roll 0 - Euskal Supporters 1  
 Pier Nodoiuna 0 - Joseba Kont 6  
 Nahiz eta Gure 0 - Balon Rojo 1  
 Beluga 5 - Ganbelas 1  
 High Society 2 - Blind 2

**F taldea**

Dribling 7 - L Tropikana 4  
 Lautherbrunen 8 - Arsenal DHD 3  
 Cheer Readers 5 - Malpikas 8  
 Potrosorri 4 - Baneuko 1  
 Munar Txiki 5 - Uglys Txinato 4  
 Interlaken 1 - Leya 8

**URIBE AUZOA TXAPELKETAKO HURRENGO PARTIDUAK**

**Larunbata 25**

**Iturripe A**

11.00 Cheer Readers - Munar Txiki  
 12.00 Hirei - Los Urracas  
 13.00 Arrasate Zoo - Eight  
 14.00 Potrosorri - Leya  
 15.00 Bortxitxak - Borrock Roll Prom  
 16.00 Lautherbrunen - Interlaken  
 17.00 Racing Molotov - Ganbelas  
 18.00 Gallinero - Zurt  
 19.00 Pier Nodoiuna - Beluga

**Iturripe B**

13.00 Dribling - Uglys Txinato  
 14.00 Euskal Supporters - Joseba kont.  
 15.00 Manchester Fumaited - Elisabeth  
 16.00 L Tropikana - Baneuko  
 17.00 Power Rangers - Jaleo Bila  
 18.00 Arsenal DHD - Malpikas  
 19.00 Diego Antonio - Betrayer

**Igandea 26**

**Iturripe A**

11.00 Zigarrola Mutilzaharrak - Mikel Lasa Aseg.  
 12.00 La Mosca Gao - Egocentrikos  
 13.00 Amo Katxis - Ganba al whisky

**Iturripe B**

11.00 Nuevo taberna - Rayo Batikano  
 12.00 Tandem - Cartonajes Igamo  
 13.00 Decima Victima - Pobres Rangers

## Uribe auzoko sailkapena

**A taldea**

Zutari .....17  
 Hirei.....15  
 La Mosca Gao .....13  
 Patxi eta Txapi .....13  
 Los Urracas .....12  
 The Barrio .....12  
 Kamasutra promesak .....10  
 Egocentricos .....7  
 Creature Feature .....6  
 Killer Barbies .....6  
 Zipote Nukleico .....5  
 Pasteleria Papur .....0

**B taldea**

Nuevo taberna .....18  
 Pobres Rangers .....18  
 Eight .....16  
 Decima Victima .....14  
 Arrasate Zoo .....12  
 Amo Katxis .....10  
 Elisabeth .....8  
 Ganba Al whisky .....7  
 Ale Alee .....6  
 Kamasutra .....4  
 Manchester Fumaited .....3  
 Rayo Vatikano .....1

**D taldea**

Betrayer .....16  
 Diego Antonio .....16  
 Zigarr Mutilzaharrak .....13  
 Cartonajes Igamo .....13  
 Jaleo Bila .....12  
 Bortxitxak .....11  
 Power Rangers .....11  
 Borrock Roll Pro .....8  
 Gallinero .....7  
 Tandem .....7  
 Zurt .....5  
 Mikel Lasa Aseg .....1

**E taldea**

Racing Molotov .....17  
 Balon Rojo .....17  
 Beluga .....15  
 Joseba Kont .....15  
 Ganbelas .....12  
 Euskal Suporters .....11  
 High Society .....7  
 Koka Juniors .....6  
 Nahiz ta gure .....6  
 Bling .....5  
 Borrock Roll .....4  
 Pier Nodoiuna .....3

**F taldea**

Uglys Txinato .....18  
 Malpikas .....16  
 Dribling .....16  
 Munar Txiki .....13  
 Leya .....12  
 Potrosorri .....11  
 Lautherbrunen .....9  
 L Tropikana .....9  
 Baneuko .....8  
 Cheer Readers .....3  
 Interlaken .....3  
 Arsenal DHD .....2

## Nesken Futbito Txapelketa

**Emaizak**

Joixon Bertan 1 - Izenbakuak 6  
 Zeppaesstandon 0 - Shaktale 1

**Hurrengo partiduak**

11.00 Shaktale - Izenbakuak  
 12.00 Joixon Bertan - Zeppaesstandon

**Play-Off-eko taldeak**

Shaktale  
 Izenbakuak  
 Zeppaesstandon  
 Joixon Bertan

# Hamabost urte kartzelan

**Hamabost urte. Erraz esaten da, baina nekez pasatu. Are eta neke-zago kartzelan bada. Errutina. Preso daudenen patua egunak errepikatu beharra. Bisitak, trasladoak, txa-**

**peoak, gose-grebak... eten bakarra kartzeletako bizimoduan; gustokiak lehenak, halabeharrez datozenak gainontzekoak. Pako Robles eta Jon Agirre arrasatearrek, beste askok**

**bezala, hamabost urtez bizi izan dute egoera hori, eurek eta euren familiarterko eta lagunek. Konponketarik ez badator, beste hainbeste pasa ditzakete.**

Beñardo Kortabarría


**G**oizean goiz jai-ki, gosaldu, patioan ordu batzuk, bazkaldu, patioa, afaldu eta hurrengo egunera arte. Normaltasuna dagoenean kartzeletan egunak horrela igarotzera behartuta leudeke. Tartean eta ahal denean liburutegia, eskulanak, gimnasia...

Baina errealitatea desberdina da. Guztientzat legea bera izanik ere, kartzela bat mundu bat, zuzendari bakoitzaren nahien, desioen edo arauen arabera. Zeldetan kabidu ezinik batzuetan, kartzela osoan eta zeldan bakar bakarrik beste askotan, lagun bakarrekin hurrengoan. Bolada batzuetan katxeoak eta erregistroak edozein ordutan, jipoiak, gauez funtzionariak zeldan sartu eta lotan dagoena iratzarri dena


hankaz gora utzi; normaltasuna beste une batzuetan. Funtzionariaren umoreak ere ba ei du zerikusirik kartzelako eguneroko bizitzan, begiradari eusteagatik zigorra orain, ezer ez hurrengoan. Auskalo zein irizpideren arabera hartzen den trasladoen mehatxua, berriz, beti hortxe; gauzarik txarrenetarikoa ei da, bakardadea, beldurra eta babesik ezaren ekspresio gorena. Esaldi bakar batean esa-

teko, inoren aginduetara bizi beharra.

Edozein egoerak izaten du baina mugaren bat, edozein pertsonak duen moduan, eta horiek gainditutakoan hasi ohi dira presoek presio egitekoro borroka moduak: zeldan pasatzea egun osoa edo txapeoa beste era batean esanda, bisitetara ez agertzea, gose grebak, eta besterik ezin denean gose eta egarri grebak. Presoengan eragin latza iza-



Jon Agirre.



Pako Robles, erdikoa, Leongo kartzelan ateratako argazkian.

ten du horrek guztiak, baita euren familiarteko eta lagunengan ere. Trasladatu duten alaba edo anaia non ote dagoen, gose grebatik nola irten go den, bisitara joan eta sartzen utziko al dioten, gaitzotzen bada behar bezala sendatuko duten edo ez...Egonezina eta beldurra senideengan.

1981tik hona, deskribatutakoaren antzerako makina bat egoeratan egon izan dira Pako Robles eta Jon Agirre, eta eurak bezala ingurukoak.

**PAKO, KARTZELAN AITA EGIN DA**

Osintxun atxilotu zuten Pako Robles, 1981eko maiatzaren 10ean. Atxilotzerakoan balaz zauritu eta terrorismoaren aurkako lege ezarri ziotenez, 10 egun pasa behar izan zituen komisaldagian. Torturen salaketa egin zuen, baina inolako emaitza barik. Orduetik 7 espetxetan egon da: Carabanchel, Alcalá, Soria, Herrera, Puerto, León eta Asturiaseko Villabonan. Pentsatuz urteak 50 aste inguru dituela eta egon den tokietara astero norbait joan zaiola bisitan, joan-etorrian ibili direnek dagoeneko 990.000 kilometro egin dituzte, Asturiaseko egonaldia kontuan hartu barik. Denbora horretan 11 gose-greba egin ditu, gutxi gorabehera 150en bat egun ezer jateke. “Denok bezala, apur bat zaharrago, baina ez da gehiegi aldatu - Marijeren hitzak dira, Pakoren emaztearenak- oraindik lehengo genioa dauka, betidanik izan da karakter gogorrekoa. Moral aldetik ondo dabil, behintzat bisitetan animoso ikusten zaio”. Kimetz dago Marijeren ondoan, 7 urteko mutikoa. Femurrean ebakuntza egin zioten eta etxean darama denbora piloa. “Abokatuekin eta lanean ari gara, Pako mutikoa ikuste-



Mari Tere eta Eduardo, Jonen familiartekoak.


**“Pentsatuz urteak 50 aste dituela eta astero egon den tokietara norbait joan zaiola bisitan, joan-etorrian ibili direnek dagoeneko 990.000 kilometro egin dituzte”**

**“Tenerifera joateko, merkeen izanda ere, 125.000 pta. behar dira. Hilean behin joaten gara eta aste osoa pasatzen dugu bertan”**

ra etor dadin, baina zaila izan da. Horixe du pena handiena, mutikoa ezin ikusi izana”. Gogoia eduki eta Alcalán zegoela erabaki zuten umea ekartzea. Marijek hazi behar

izan du. “Eskerrak familia-koei, asko lagundu didate”.

Istripuak, sustoak, aberiak... denetarik bizi izan du Marijek hamabost urte hauetan, eta aitortzen du autoari



Musakolan egin zen elkartasun manifestaldia.



Marje eta Kimetz, Pakoren emaztea eta semea.

beldur handia hartu diola. "Dena den, unerik txarrena Puerton egon zen denbora izan zen, urruti egoteaz gain oso baldintza txarretan zeuzkatzen. Gureganako gorrotoa ere antzematen zitzaizen funtzionariei, katxeoak, umilazioak, bidaiak alperrik egitea, eurei zigorrak edozergatik, dena kontrolatzea... Uste dut biondako hura izan dela txarrena. Esperantza? Esperantza ez da galtzen".

#### JON: EZIN URRUNAGO

Pako bezala, Jon Agirre ere ez ei da apenas aldatu, hori dio behintzat Mari Tere Agirriari, bere arreba. "Hasierako ideiak dauzka harek, ez ditu aldatu. Izaeraz? Berdin berdin, oso alegrea izaten jarraitzen du. Hori bai, apur bat gastatuta normala den moduan, hainbeste gose greba egin ondoren". Jon Alcalán zegoela hasi zen Mari Tere gorabehera guztiak kua-

derno baten apuntatzen, bisi-tan nor egon den, kilometroak, anekdotak, hala ere galduta dauka gosa greben kopurua. "Okerrera Puertokoa izan zen. 37 egun segidan pasa zituen gose greban, ahotik odola botatzen hasteraino".

Azken 6 urteotan Tenerifenen daukate Jon Agirre, eta lehen Carabanchel, Puerto, Herrera, Alcalá, Ocaña eta Sevillan egondakoa da. Kilometroen kalkulua eginez gero,

Tenerifera eraman aurretik bera ikustera joan direnek 744.800 eginda zeuzkatela esan behar. Dirutan auskalo zenbatean ateratzen den hori guztia. "Orain bisita bakoitzeko, merkeena hartuta ere, 125.000 pta. gastatzen ditugu. Hilean behin joaten gara Tenerifera eta gutxienez bertan astebete egon beharra dago".

Mari Tere bizilagunari, Eduardo Gutierrez, funtzionarien jarrerak ematen die min eta amorru gehien. "Bisita ordu jakin batean jarri eta gero beste batean sartzen zaituzte, paketea sartu nahi eta pegak besterik ez. Kartzela inguruak ere ez dira gozoak izaten, Ocañan esatebaterako oso gaizki begiratzen gintuzten, baita mehatxatu ere".

Asko idaztekoak dira bai Jon eta baita Pako ere. Pakok kazetaritza ikasketak ere burutu ditu; Jonek, ikasketarik ez, baina asko irakurtzen ei du. Herria ei dute gogoko, herri-tarrak, gauza bera diote Mari-jek eta Mari Terek. "Bisitara etortzen direnean ez zaie politikaz hitzegitea gustatzen, nahiz eta askotan hortaz hitzegiten bukatu. Nahiago izaten dute herrian zertan ari den jendea eta kalean zer giro dagoen jakitea".

## Jende ugari Musakolako omenaldian

**O**menaldia jaso zuten Pako Roblesek eta Jon Agirrek Musakolako jaien barruan eta Musakolan bertan, Amnistia-aren aldeko Batzordeak antolatuta. Erakunde horrek argi utzi zuen omenaldiaren helburua ez zela ospakizunak egitea, "alderantziz, espetxean jasan behar izan dituzten 15 urte luze hauetan mantendu izan duten giza eta politika koherentzia gogoratzea".

Lagun ugari hurbildu zen Musakolako San Antolin plazan egindako ekitaldira. Txalapartariena saioa eta lore eskaintza egin zitzaizen bi presoen familiartekoei. Hauek, Agirrerena eta Roblesen egoera azaltzeaz gain, sakabanaketa bai presoentzat eta bai eurentzat oso gogorra zela aipatu zuten.

Omenaldi ekitaldiaren ondoren Manifestazioa egin zen Musakolako kaleetan zehar.



Loreak jaso zituzten Jon eta Pakoren familiartekoei.

# Gimnasia erritmikako Gipuzkoako txapelketa Iturripeko kiroldegian

Gimnasia erritmikako Gipuzkoako Txapelketa egin-go da zapatuan Arrasaten. Iturripeko kiroldegian 180 gimnasta baino gehiago elkartuko dira egin beharreko ariketak ahalik eta ondoen egiteko. Urretxu, Lasarte-Oria, Bergara, Azkoitia, Azpeitia, Hernani, Hondarribia, Sorluze, Tolosa, Oñati, Arrasate eta Donostiako gimnasten eszenatoki bihurtuko da Iturripe. Goizeko 9etan hasiko da Txapelketa. Taldeka eta banan banako ariketak izango dituzte. Taldeka alebinak hasiko dira, gero infantilen txanda etorriko da, ondoren kadeteena eta azkenik jubentilek erakutsi beharko dute zer egiteko gauza diren. Banan banakoan alebinek esku librekin eta sokarekin egin beharko dute lan. Infantilek soka eta uztaiarekin.



Arrasateko gimnastek gogor entrenatu dute txapelketa bikainena egiteko.

Kadeteek uztaia eta zintarekin. Jubentilek berriz, maza eta zintarekin. Txapelketa Gipuzkoako Gimnasia Erritmikako Federakuntzak, Foru

Aldundiak eta Arrasateko Gimnasia taldeak antolatuko dute.

Arantzazu Zubia eta Adelaida Silvar Arrasateko entrenatzaileek esan dutenez, herriko gimnastak ondo ari dira entrenatzen, maila polita daukate beraz goi postuetan ibiltzeko aukera izan dezakete zapatuan. Azken aste hauekako entrenamenduak benetan gogorrak izan direla aipatu dute "Gogor entrenatu dugu dena gertu izateko. Hasieran fisikoa lantzen hasi ginen,

gero tresna desberdinak, Ondoren muntaia etorri zen eta hori guztia egin eta gero, ordu asko sartu dugu ariketak errepikatu eta maila handiena lortzeko".

Txapelketa ondo badao herriko neskatilek lan polita egin dezakete. Gainera banan banakoan lehen bost postuetan sailkatzen diren gimnastak eta taldekoan hiru lehenen barruan Euskadiko lagun arteko txapelketan parte hartzeko aukera izango dute ekainaren 8an.



Maitek kadete mailan hartuko du parte uztaia eta zintarekin.

## Arrasateko ordezkariak

### Alebinak

Janire Bolinaga, Idurre Garcia, Maria Etxeberria eta Miren Bragado.

### Infantilak

Esther Fernandez eta Edurne Canas

### Kadeteak

Naiara Saenz, Idoia Fernandez, Maite Albes eta Sheila Sanchez.

• Elena Lanuzak eskola arteko A mailako Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko du domekan Donostiako Altza kiroldegian. Elena jubentila da



# J. M. Barrutiabengoa

## Mondrako entrenatzaile berria

Mondra taldeak ezin izan dio 3. mailari eutsi eta datorren denboraldian preferentean jokatu du. Azken partidua Getxoren kontra jokatu zuen eta garaipenarekin itzuli baziren ere, puntu horiek ez ziren nahikoak izan zegoen mailan jarraitzeko. Astelehenetik Mondrako ordezkariak taldea egituratzen ari dira eta dagoeneko hainbat nobedade dago. Preferente mailako entrenatzailea ez da Nedza Zivojeciv izango, Jesus Mari Barrutiabengoa, Txui, baizik. Txuiuk ohorezko liga eta lehen erregionaleko taldeek entrenatu zituen iaz. 96-97 denboraldian beste erronka bat izango du preferente mailan. Nedzak berriz, gazte mailako koordinatzaile lanak beteko ditu. Lehen erregionaleko entrenatzailea



Zoritxarrez Mondrak ezin izan du 3. mailan jarraitu.

Neka izango da. Jokalariei dagokionez lau baja ziur daude une honetan. Prieto atezainak, Zabaletak, Morenok eta Treviñok ez dute Arrasateko taldean jarraituko. Dena dela ez dira bakarrak izango. Mondrakoen helburua etxeko jokalari

lariekin talde sendoa osatzea da, ahal bada urtebetean berriro 3. mailara igotzeko. Hori dela eta, Igor Gordobil, Iban Aranguren eta Iker Balzategi moduko jokalariekin hitzegiteko asmoa dute, euren beteraniaz talde lehiakorrena gauzatzeko.

## Urbina Maltzagaren denboraldi bikaina

Urbina Maltzagak garai-pen batekin esan dio agur 95-96 denboraldiari. Arrasateko saskibaloitza taldearentzat urte bikaina izan dela esan behar. Amerikarrarekin hasieran ez zuten zorte gehiegi izan baina azkenean ondo asmatu zuten. Denboraldian zehar ere gorabehera batzuk izan zituzten baina ekinaren ekinez gaintu eta talde lehiakor bat osatu dute. Azken txanpan Urbina Maltzagak Gipuzkoako talde onena eta estatu mailan kontuan hartzekoa dela erakutsi du. ACBra igotzeko play offean sartu zen inork gutxik espero zuenean eta bertan lan txukuna egin dutela ezin ahaztu. Orain datorren denboraldiari begira jarri beharko dira eta aldaketa dextente egon daitekeela somatzen da. Joserra Garai eta Carlus Groves taldeko baja bakarrak dira une honetan. Amerikarra Estatu Batuetara joan zen asteazkenean. Gomez eta Rodriguezek ere ziuurren ez dute jarraituko. Hauek Basconiarekin dute kontratua eta beraiekin argitu beharko dute etorkizuna.

## Rugbyko topaketak

Rugby taldea jaio zenetik 25 urte igaro direnean hainbat ekintza antolatu du aste hauetarako. Zapatuan infantil mailako topaketak izango dira Garagartzako zelaian goizeko 10.30etatik aurrera. Etorriko diren taldeak: Hernani, Eibar, Zarautz, Bera Bera, Ordizia eta Getxo. Bide batez esan behar da Rugby taldekoak oso hase-re daudela Garagartzako zelaiko belarra luze luze dagoelako eta inor ez delako moztera hurbildu.

## Ramon Jauroso txapeldun Arrasate Oñati lasterketan

Jantzi Kirola Euskaraz lemapean Arrasate Oñati burutu zen domekan goizeko 11etan. Maila desberdineko sariak korrikalari hauek jaso zituzten.

### Gizonak

Ramon Jauroso	36'12"
Xabier Iturralde	36'28"
Asier Cuevas	37'23"

### Emakumeak

Uxo Sorazu	43'03"
Lurdes Alonso	49'08"
Isabel Ramos	50'21"

### Beteranoak

Eloy Corres	39'31"
Marijose Gil	52'45"

### Lehen Arrasatearrak

Jabier Mentxaka 38'11"  
Antonina Pacho 51'53"  
• Zubillaga - Oñati

### Infantilak

1) Fernando Nogales

### Kadeteak

1) Oliver Fernandez  
3) Jonatan Perez

Atletismo taldeak beste talde taldekako Euskadiko txapelketan hartu zuen parte eta arrasatearrek beharrezko puntuak lortu zituzten lehen mailan jarraitzeko. Ez da ahaztu behar herrian ez dagoela

atletismoko pistarik beraz hemengo ordezkariak esfortzu handiagoa egin behar dute besteen mailara heltzeko. Honez gain, infantilek Gipuzkoako txapelketa izan zuten Anoetan eta Oscar Gabilanek disko jaurtiketan zilarrezko domina lortu zuen. Fernando Nogalesek urrezko domina 1.000 metrotan. Ekainaren 25ean beste frogatik bat izango dute Ordizian eta Arrasatek izango du ordezkariarik. Oscar Gabilan txabalina jaurtiketan, Fernando Nogales 1.000 eta 600 metrotan eta Ibai Jurado 150 metrotan.

*Leire Solupe*

# San Juanetako kartel lehiaketaren irabazlea

Aurtengo San Juanetako kartel iragarlearen jabeak badu izenik: Leire Solupe. 25 urteko arrasatear honek sekulako sorpresa hartu zuen Udaltzeko deia jaso eta lehiaketa berak irabazi zuela esan ziotenean. Aurreko urtetan San Juanetako kartel lehiaketara aurkeztu arren, lau urte itxaron behar izan ditu Leirek bere lana milaka esku-programetako azalean ikusteko. Leirek bere talentuari eta ordenagailuari zor dio sari hau.

— San Juan kartel lehiaketan parte hartu duzun lehenaldia izan da hau?

— Ez. Aurreko lau urtetan ere aurkeztu izan ditut kartelak.

— Aurreko urteetan aurkeztutakoen aldean, zein desberdintasun dauka aurten egin duzun kartelak?

— Orain arteko kartelak eskuz egin ditut, diseinu grafikoko eskolan gehien bat eskuz egiten genuelako lan; oraingoa berriz ordenadorez egindakoa da. Diseinu grafikoko ikasketak amaitu nituean ordenadorezko diseinu masterra egin nuen, beraz, aurtengo kartela ordenadorez egitera animatu nintzen. Aurreko urteetan akuarelaz egindako bat, jaietako argazkiekin osatutako beste bat eta collage bat egin nituen.

— Azkenaldian ordenagailuzko diseinoak leku gutxietan ikusten dira. Horrek ez dio eskuzko grafikagintzari berotasuna kentzen?

— Batzutan bai. Azkenean, gustoaren arabera izaten da hori. Niri adibidez, ez zaizkit bakarrik ordenadorez



egindako kartelak gustatzen, beraz, eskuz gauza batzuk egin eta gero ordenagailuan sartzen

ditut. Nik egin dudana kartelean monigote batzuk agertzen dira baina horiek eskuz egin



nituen lehenengo eta gero ordenadorean sartu.

— Zer izan zenuen kontuan aurtengo kartela egiterakoan?

— Batez ere kolorea. Kolore biziz apaindu dut kartela, hori oso garrantzitsua dela iruditzen zait eta. Ni behintzat, kolore biziko kartelek erakartzen naute eta ez kolore arineko edo pastel kolorekoek. Kartel batek begirada azkar batez egin behar du begira, flash batek bezela.

— Lan asko eman dizu aurtengo kartelak?

— Egia esan ez dit lanik eman, egun baten egin nuen. Aurreko urtekoa egiteko berriz, akuarelaz egin nuen hiru aste behar izan nituen.

— Aurkeztu diren gairontzeko kartelak ikusi dituzu? Zer iruditu zaizkizu?

— Hamabost kartel aurkeztu dira baina bi baino ez ditut ikusi, nik lan egiten dudana tokian inprimatu dituzte kartel horiek eta. Egia esan, asko gustatu zitzaizkidan, oso ondo eginak zeuden, maila altuko kartelak ziren.

— Espero zenuen saria?

— Ez, aurten ez nuen irabazterik espero. Joan den larunbatean deitu zidaten eta nik guztiz ahaztuta nuen kontu hori. Izugarrizko poza hartu nuen deitu zidatenean, sorpresa handia izan zen. Beste urte batzutan epaimahaiaren erabakiaren zain egon naiz eta aurten, gutxien espero nuen etxera deitu zidaten berria emateko. Dena den, ilusio gehien egiten didana nire kartela esku-programetan ikustea da.

# “La nostalgia del pepino”

## Dantza garaikide eta umoretsua

Mar Gomezen konpainia balentziarra gurera etorriko da bihar “La nostalgia del pepino” koreografi garaikidearekin. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak urtero antolatzen duen Maiatza Dantzan edizioari zor zaio emanaldi hau Arrasaten ikusi ahal izana, nahiz eta dantza garaikideko konpainiek gehien bat Donostian eskaini euren lanak.

Larunbatean arratsaldeko 8etan izango da ikusgai “La nostalgia del pepino” obra Amaia antzokian. Obra hau Mar eta Isabel Gomez arrebeek sortu dute eta iaz estreinatu zen Bartzelonan. Lau dantzarik interpretatzen dute elkarrekin zerikusirik ez duten obrako bi zatiak: Isabel Gomez balentziarrak, Natalia Labiano iruñarrak, Violeta Todó bartzelonarrak eta Rufino Gimeno balentziarrak. Obrako lehen zatiak, “Me gustas cuando callas” izenekoak, haur batek kabarereko hiru emakumeei buruz duen ikuspegia azaltzen du. Zati honetako musika Nino



Rotarena, Marlene Dietrich eta Rita Hayworthek interpretatutako abestiarena eta serbiar doinuena da. “...Y a mi cuando callas” izeneko bigarren zatiak jostunen tailer batean gertatzen den istorioa kontatzen du. Hemen Luce-ro Tena, Minkus, Verdi eta Saint Saënsen musika da nagusi. Zati bakoitzak 25 minutu inguruko iraupena dauka eta bietan umoreak leku garrantzitsua dauka.

Mar Gomezen hitzen araberak, koreografiari eman dioten neoerrealista kalifikatiboa onartzen du konpainiak baina nahiago dute leku desberdinetatik gutxinaka gutxinaka hartutako influentziekin osatutako koreografia bat dela esatea. Mar Gomezen konpainia 1991an sortu zen eta Arrasaten eskainiko duten obra konpainiak sortu duen laugarrena da.

Sarrerak 800 ptan, Gazte-Txartelarekin 600ean.

## MUSIKA

### Abesbatzak parrokian

Goikobaluk antolatuta Bartzelonako Sants-ko Orfeoiaren emanaldia izango da larunbatean arratsaldeko 8etan San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Sants-ko Orfeoia 1900. urtean sortu zen Bartzelonako Sants auzoan eta bere sorrera Estanislau Mateu musikariari zor zaio, gaur egun desagertuta dagoen Círculo de Sants antzokian Orfeo Catalá emanaldi bat eman zuten. Gaur egun Montserrat Tous y Alsina da orfeoi honetako zuzendaria.

Abesbatza honen errepertorioa oso ugaria da, Errenazimenduko polifoniatik hasita Erromantizismoraino eta garaiko obretaraino. Kataluniako kantu tradizionalak eta folklorea ere lantzen du orfeoi katalarrak. Sants-ko Orfeoia interpretatu dituen obra garrantzitsuen artean Manuel Oltra-ren “Psalmus Brevis” eta Fauré-ren “Requiem” aipatu daitezke.

Gaur egun 50 kantarik osatzen dute orfeoi prestigiotsu hau.




- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



Juan Carlos Guerra enparantza  
Tfnoa: 79 18 39  
ARRASATE



## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE



### LABORE ETXEA


- Gurutze puntuak (Kit prestatuak)
- Petit-point eta Bolilloa
- DMC ariak (koloreen gama guztiak)
- Arizko tela, Panama

Kalebarria, 49 • OÑATI • Tfnoa: 78 04 84



XX

# TeleAzoka



Zure iragarkiak  
**merke-merke**  
teletestuan.

*Astero astero iragarki berriak!*



Informazioa: **77 08 15**

● *Joseba Ezpeleta*

# “AEDren listoia altu dago”

**AEDren lehendakari izateko ardura hartu berri du Joseba Ezpeleta arrasatearrak, eta horregatik, orain elkar-  
tea ezagutzen ari da. Hori bai, elkar-  
teak duen egitura sakonarekin eta mugitzen duen jende kopuruarekin “harritu-  
ta” geratu dela aitortu digu. Hasi berria den arren, lehendakariak badu proiekturik epe motzera begira.**

**- Zein da Joseba Ezpeleta?**

- Arrasatear bat gehiago. 29 urte ditut eta Ekonomian lizentziatua naiz. Bergarako Udaletxean dihardut lanean errenta teknikari modura. Afizioei dagokienez, ez dut afizio berezirik baina kirola gustotok dut.

**- Zer dela eta AEDren lehendakaria?**

- Aspalditik naiz AEDren bazkide, eta aurtun Zuzendaritza Batzordeko kide izatea proposatu zidaten. Onartu eta martxoan Zuzendaritza Batzordean parte hartzen hasi nintzen. Ondoren, Zuzendaritzako kideen artean karguen banaketa egiterakoan, niri lehendakari izatea tokatu zi-

tzaidan. Aurrez zegoen lehendakariak kargua utzi behar zuenez, derrigorrez beste norbait izendatu behar zen eta neure izena atera zen.

**- AED izen handiko elkar-  
tea da. Hartuko duzun ardura ere handia.**


- Niretako erronka garrantzitsua da AEDren lehendakari izatea. Elkar-  
tearen listoia altu dago, eta horri eusteko kapaz banaiz, konforme!. Euskalgintzan eta herrigintzan lanean dabilzan elkar-  
tearen artean ospe handia du AEDk. Kanpora irtetzen zarenean, gainera, gehiago konturatzen zara AED zer den. Kanpoan erreferentzia garrantzitsua da.

**- Zelan ikusten duzu euskararen egoera Arrasaten?**

- AEDk egin duen lana asko igartzen da. Arrasate herri industrializatua da, etorkin asko jaso duena baina hala ere euskalduna. Beste herri batzuek ere jaso dituzte etorkinak baina ez dira Arrasate bezain euskaldunak.

**- Arrasatearrek badute euskararekiko kontzientziarik?**

- AEDk ia 1.000 bazkide ditu eta hori nire ustez lorpen handia da. Erabilpenari dagokionez, berriz, azken datuek erakusten dute apurka-apur-



ka gorantz doala. Hala ere oraindik badago zer egin, euskara zabaldu eta gizarte-  
ko arlo guztietan euskararen normalizazioa lortzeko. Horretarako, ahalik eta jende gehienarengana iritsi behar gara.

**- Zer esango zenioke euskaraz bizi izateko asmorik ez duen pertsona bati.**

- Euskaldunoi askotan hitzegiten digute tolerantzia, errespetua, integrazioa eta horrelako gauzei buruz. Tolerantzia, gainera, gu geu beste aurrean tolerante izatea dela uste dugu baina gure aurrean inor ez da tolerante. Bakoitza bere esparruan nahi duen eran bizi daiteke, baina talde baten aurrean guztiei eskatu behar zaie tolerante izatea. Adibidez, talde batean pertsona batek euskaraz ez badaki tolerantziaren ize-  
nean euskaraz ez dakien

horrek erdaraz egitea eskatuko du, baina ez da konturatzen bere jarrera intolerantea dela. Euskaldunoi elebidunak izatea eskatzen digute, baina gu gara elebidun bakarrak Euskal Herrian, besteak ez.

**- Jakin izan dugunez laster elkar-  
te berri bat sortuko da AEDk bultzatuta.**

- Horrela da. Txatxili-  
purdik eta egin duten moduan denbora gutxi barru Euskalan taldea erakundetu egingo da, euskara lan munduan normalizatzeko helburuz. Kooperatibetan euskararen alde lanean dabilen talde batek bultzatuta sortuko da Euskalan. Euskalan talde eragile bat izango da, euskarak lan munduan ere tokia izan dezan.

**- AEDren helburua baka-  
rrik Arrasate euskalduntzea da?**

- Arrasate euskalduntzea da AEDren helburu nagusia, baina Euskal Herriko euskalgintzan ere eragin nahi dugu eta horretarako ahaleginak ere egiten dira.

● **“Euskara lan munduan normalizatzeko helburuz, denbora gutxi barru Euskalan taldea erakundetu egingo da”**



rrasateko rugby taldearen hasieratako argazkia gaur txoko honetara, 1976-77 urteetan ateratakoa.


Ezkerretik eskumara eta goitik hasita, hauek dira argazkikoak: **Pedro Mari Zuazubiskar, Luis Etxeberria, Txile, Patxi Gorosable, P.M. Azkar-**

**gorta, Luis Maria Lizarazu, Diaz de Zerio, Agapito Fuentes, eta Julian Gallo.**


Makurtuta, **Oses, Luis Mari Heriz, Jose Luis Unzueta, Claudio Merchant, Iñaki Heriz, Juan Mari Arejolaleiba, eta Aitor Garate.**

Itxura baten argakia

Nafarroan aterata dago eta Iruñaren kontra jokatu beharreko partidu bat hasi aurretik, denbora batean jokatzen zen Euskal Ligari zegokiona hain zuzen. Txapelketa haretan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako taldeek hartzen zuten parte.



**Zure OPEL banatzailea ARRASATEN, zergatik joan urrunago?**

**OPEL** 


**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

# Z E R N A H I A G O ?

## Agustin Algaba "Totem" dendakoa

- Kanperak ala zapatilak? Kanperak.
- Alperra zara? Ez.
- Makailaua ala rocka? Rocka.
- Rockero bat? Rosendo.
- Nora joaten zara zapatu gauean? Lizarrara, edo bestela Arrasaten geratzen naiz.
- Abiadura gustatzen zaizu? Bai, baina kotxean ez naiz azkar ibiltzen.
- Kirolik egiten duzu? Ez, ez daukat denborarik.
- Aholku bat? Izan zaitez ona eta atsegina jendearekin.
- Zer irakurtzen duzu? Egunkaria eta Marca.
- Zerk arduratzen zaitu? Lanak eta osasunak.
- Arrasaten badago martxarik? Arrasatek Europa dirudi, martxa gehiago egon zitekeen.
- Egon zara Musakolako jaietan? Ez.
- Nora egingo zenuke bidaia bat? Euskal Herriko toki lasai batera, menditik gertu dagoen batera.
- Kartetan jolasten duzu? Ez.
- Zenbat enpaste duzu? Ez dakit, asko.
- Asko kostatzen zaizu lo hartzea? Ezer ere ez.
- Zeinek garbitzen dizkizu zapatak? Nik neuk: soldaduzkan ikasi nuen gauza bakarra da.
- Ikusi zenuen pilotako finala? Bai. Oso partidu ona izan zen eta nire faboritoak irabazi zuten, Eugik.
- Zer baloratzen duzu gehien pertsona batengan? Zintzotasuna.
- Mezatarra joaten zara? Ez.
- Nola joan zinen jantzita lehen jaunartzean? Praka motzaz eta txarolezko zapatekin.
- Lehenengo mozkorra, noiz? Oso gazte, 12 urterekin.
- Lehen muxua? 15ekin baina ez nuen asko gozatu.



## ELKARTASUNA

### Matrikulazioa

Zabalik dago Jesusi Etxebarriaren musika eskolan 96-97 ikasturteko matrikula egiteko epea. Matrikulazioa ekainaren 18ra arte egin ahal izango da arratsaldeko 4etatik 9etara bitartean.

Jesusi Etxebarriaren musika eskolan 5 urtetik gorako umeek nahiz edozein adineko afizionatuk eman dezake izena. Bertan solfeo, kantu koral, armonia, piano, akordeoi, flauta, txistu eta kitarra eskolak ematen dira. Matrikulazioa egiteko 79 17 67 telefonora deitu.

### Eskulan erakusketa

Maiatzaren 21ean zabaldu zuen Famili eta Gizarte Hezketarako Zentruak erakusketa Monterronen. Ekainaren 2ra arte kurtsoan zehar zentruko eskulan ikastaroko ikasleek egin dituzten eraguztietako eskulanak ikus daitezke. Egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jai-egunetan 12etatik ordu bietera eta 6etatik 8etara bisita daiteke erakusketa.



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

• ESAERA •

“Ohean denbora gehien pasatzea behartzen duen gaixotasuna amurante eder bat da”

JARDIEL PONCELA

• JEROGLIFIKOA •



Nor etorri da?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10					11		
12		13					
14							15
16				17			
18							

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. *El Cadaver de Porqueriza* idatzi du. 9. Dotoretuz. 10. Sozietate Anonimoaren sigla. 11. (Ald.) Ile. 12. Gehiegizko harrotasuna. 14. (Ald.) Gizon izena. 16. Berriketa higuingarriak. 18. Akerrak ahuntza estali.

**Bertikalak** 1. Masustondoak ematen duen fruitua. 2. Erregaluak. 3. Nafarroako ibilgailuetan. 4. Karguren bat berea duena. 5. India. 6. Prestatu, antolatu. 7. Inolako baliorik ez duena. 8. (Ald.) Pertsona bakarti izukorra. 13. Zure eta nire. 15. Eguzki. 17. ANETOkontsonanteak.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Bainujantzia janzteko garaia heldu denez, kirola egiten hasi!

**Taurus** Jasangaintza da zure alboan futbol partidua ikustea.

**Gemini** Pasota galanta zara, baina gauza batzuk asko axola zaizkizu.

**Cancer** Zergatik ateratzen zara hain itsusi argazkietan?

**Leo** Belarri handiak eduki arren, ez duzu ezertxo ere entzuten.

**Virgo** Zer ikusten duzu ispiluaren aurrean. Mamu bat?

**Libra** Hanka sartzen duzunean umore txarrez jartzen zara.

**Scorpio** Nork dauka zu horrelakoa izatearen errua? Amak?

**Sagitaris** Zure arazoez buruko mina ematen diete inguruko guztiei.

**Capricorn** Bi aldiz mendira joan eta eguraldi gizona zarelakoan.

**Aquarius** Oso diskretoza zara goizetan baina gauetan...

**Piscis** Jarraitzaile amorratuak dituzu baina laster amorraraziko zaituzte.

# Etxe-Aundi

Torrauzo, 9  
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



Dagoeneko zabalik dago Etxe-Aundiko hotela.  
Zatoz ezagutzera!



## TELEBISTAREN TXOKOA

# Agur Nor Nori Rock saioari

**D**atorren asteazkenean Nor Nori Rock musika saioaren azken programa emitituko da eta egun horretarako programa berezia prestatu dute ATBko rockerok. Alde batetik urte osoan zehar programatik igaro diren taldeen errepasoa egingo da eta gainera, aireratu ez diren



akatsdun grabaketa bilduma ere erakutsiko dute programako arduradunek: barre batzuk egiteko auke-

ra paregabea. Ez ahaztu lehiaketako irabazleak ere aterako direla datorren asteazkenean.

## KOMIKIA



Zaguzar.

## Etxe-Aundi

### 1. PLATERA

*Bi plater aukeran*

*Etxeko gozoteria*

### 2. PLATERA

*Haragia edo arraina*

*Etxeko ardo gorria eta beltza*

*Kafea*

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

## SOLUZIOAK

**Jeroglifikoak:**

Irakaste.

17. Nr.

Nulu. 8. (Ald.) Ozu. 13. Gure. 15. Eki.

3. Na. 4. Triluar. 5. In. 6. Adela. 7.

**Bertikatik:** 1. Masusia. 2. Opartak.

Akentu.

In. 14. (Ald.) Stul. 16. Tarrantak. 18.

duz. 10. SA. 11. (Ald.) Eku. 12. Urtu-

**Horizontalak:** 1. Montiano. 9. Apat-

## PROGRAMAZIOA



### 24 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Elkartean (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

9.30etan

Astebete

Gaia: Zelan aukera

ikasketak

Gonbidatuak: Elena

Errasti SFXeko Ikasketa

arduraduna eta Dani

Larrea, Lanbide

Hastapenko arduraduna

### 27 Astelehena

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Astebete (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Mondrasport

### 28 Asteartea

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Mondrasport (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Barrelekaixoka

### 29 Asteazkena

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Barrelekaixoka (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Nor Nori Rock

Azken programa eta

lehiaketa

### 30 Osteguna

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Nor Nori Rock (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Elkartean

San Isidro

### 31 Ostirala

13.30etan

Albiste aurrerapena

13.35etan

Elkartean (errep.)

20.00, 20.30 eta 21.00etan

Berriak

21.30etan

Astebete

**Etxebizitzak**

- **Biltegi bezala erabiltzeko** lokala alokatzen da. Tfnoa: 79 20 48.
- **Neska gazte** batek pisu txiki bat alokatuko luke. Tfnoa: 79 87 47. Virginia.
- **Ezcaray-en (Errioxa) pisua alokagai** uztaila eta irailean. Kirol instalakuntzarekin. Tfnoa: 79 31 56.
- **Cordoba y Oro kalean etxebizitza salgai.** Tfnoa: 79 69 00.
- **Taberna bat alokatzen da Arrasaten.** Tfnoa: 77 14 93.
- **San Andresen garajea,** 310 m<sup>2</sup> lokal bat eta 60 m<sup>2</sup>ko bulego ekipatua dutxa eta komunarekin salgai.
- **Bi ohedun logela alokatzen da** Elkano kalean. Tfnoa: 79 07 73.
- **Torreviejan apartamentua alokatzen da.** Bi logela, pizina eta ikuzgailua eta hondartzatik oso gertu. Tfnoa: 79 53 18.
- **Jakan apartamentua alokatzen da udan.** Tfnoa: 74 15 22.
- **Etxebizitza salgai Erdiko kalean.** Tfnoa: 79 96 14.
- **Alokatzeko pisu baten bila nabil.** Tfnoa: 79 86 06. Mikel.
- **10 milioi pezeta inguruko etxebizitza erosi-ko nuke.** Tfnoa: 77 00 77.
- **Baserria salgai Gesalibarren.** Dei egin arratsaldean edo gauez 79 97 35 tfnora.
- **Laredon apartamentua alokagai.** San Juan astean eta uztailan. Tfnoa: 76 44 34.
- **Laredon apartamentua alokagai.** Tfnoa: 79 31 47.

**Lana**

- **Mutil bat behar dugu** kirolenda baten lan egiteko. Bidali datuak 259 postakutxatilara.
- **Neska gaztea prest** arratsaldean etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 07 58. Mari-sol.
- **Domeketan lan egiteko prest** egongo den neska behar da. Derrigorrezkoa kotxea izatea. Tfnoa: 79 47 85.
- **OHoko klase partikularrak** emateko gertu. Tfnoa: 79 98 30.
- **Esperientziadun neska umeak** zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 77 94. M<sup>a</sup> Eugenia.
- **Andra gerontologian diplomaduna** eta erizain laguntzailea persona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 34 53.
- **Emakumea lan egiteko prest.** Tfnoa: 77 10 25.
- **Esperientzia duen neska euskalduna jatorria behar da** tabernan lan egiteko. Oso ordutegi ona. Tfnoa: 79 60 10. Arantxa.
- **Lanak ordenadorez pasatzen dira.** Tfnoa: 79 31 47.
- **Emakume euskalduna behar da** umeak zaintzeko. Tfnoa: 77 06 50. Dei egin 9etatik aurrera.

**Salerosketak**

- **Nissan Vanette isotermikoa salgai.** Diesela. Egoera onean. Tfnoa: 21 18 55.
- **Ezkontzarako soinekoa salgai.** Gaueko 8etatik 10etara 76 06 53 tfnora.

- **ZZR-600 motorra salgai.** Extra asko: parrila, alarma, depositoa babestekoa, kaskoa... Gauza asko berri berriak ditu, beltza eta larrosa kolorekoa da. Gertu gertu erabiltzeko. Tfnoa: 79 74 61. Juan Carlos.
- **Moto-bizikleta salgai.** Egoera eta prezio ona. Tfnoa: 79 33 10. Jon.
- **Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke.** Eli. Tfnoa: 72 30 25.
- **Baja emanda daukan R-18 saltzen da** piezak aprobetxatzeko. Tfnoa: 79 50 96.
- **Volkswagen 1.200 eskarabajoa salgai.** Oso egoera onean eta prezio interesgarrian. Tfnoa: 77 0775. Gauetan.
- **Opel Corsa autoa salgai.** 4361-V. 100.000 pta. tan. Tfnoa: 79 15 07.
- **Renault Express 1.1 salgai.** NA-Y. Tfnoa: 79 11 20.
- **Paseorako Orbea txirindua salgai.** 8.000 pta. Tfnoa: 79 99 82.
- **Kanpingerako karroa salgai.** Sei plazakoa eta egoera onean. Dei egin 20.30etatik aurrera 79 99 53ra.

**Denetarik**

- **Gurutze txiki bat duen urrezko kataia** galdu dut Portalo inguruan. Aurkitu baduzu dei egin 79 73 39 tfnora.
- **CI Metik Arrasate Kirolakera bidean,** puntuz egindako bi koadro galdu zitzaizkidan. Aurkitu badituzu dei egin 79 88 30 tfnora.
- **Joan den astean urrezko pultsera bat** galdu nuen erdigunean edo Eroski inguruan. Tfnoa: 79 84 35. Eskertuko da.
- **Maiatzaren 21ean, asteartean,** eguzkitarako betaurrekoak galdu nituen Garibai kalean. Tfnoa: 79 25 15.

**Aste Gazte**

**Lana**

- Egueseko bailarak, honako lanpostuak kaleratu du. a) Zerbitzu anitzeko operaria. Eskola-ziurtagiria eta B-1 gida baimena izatea eskatzen da. Epea: ekainak 5. b) Arkitektu teknikaria lanpostua. Arkitektu teknikoa ikasketak eta B-1 gida baimena izatea eskatzen da. Epea: ekainak 5.
- Corellako Udalak, kontuhartzaile-diruzaina lanpostua deitu du. Ekonomia, enpresa edo zuzenbidean diplomatuak direnei zuzenduta. Epea: ekainak 3.
- Cintruenigoko Udalak, administrari lanpostu bat deitu du.

Goi batxilergoa, LHII edo balio-kidea izatea eskatzen da. Epea: maiatzak 31.

**Bekak**

- "La Caixa Fundazioak" lizentziatuei zuzenduta, ikasketak hedatzeko beka hauen deialdia egin du. 1996-97 ikasturtea Bretona Handian, epea: ekainak 28. 1997-98 ikasturtea Estatu Batuetan, epea: ekainak 28.
- "Agrupación Mutua" Fundazioak, "Zahartzaroko arazokak" gaia modura duen prestakuntza beka bat deitu du. Lizentziatu zein diplomatuei zuzenduta. Epea: ekainak 30.

**Hizkuntz egonaldiak**


- Ingelesa Segurako aterpean. 18-29 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Kuota: 45.000 pta. Izenematea: ekainaren 3tik 21era.

**Lehiaketak**

- "Lazkao Txiki" V. Bertso paper lehiaketa. Hiru mailan banatzen da: 1) Gaztetxoena, 13 urte artekoentzat. 2) Gazteena, 14-18 urte artekoentzat. 3) Helduen maila, 1977an edo aurretik jaiotakoentzat. Gaia: Gaztetxoek "Gure eskola". Gazteen eta Helduen mailetan berriz gaia, neurria eta doinua, librea izango dute. Epea: uztailak 1.

**"Gizakiaren altxorra bere gaztetasan berdea da; bizitzako gainerakoa negua eta zahartzarora da".**

**PIERRE RONSARD.**  
**OLERKARI FRANTZIARRA.**



**Informazio gehiago:**  
**GAZTE ZERBITZUA**  
**Tfnoa: 77 00 65**

# Jose Aranzabal



**PHILIPS**

**BERRIZKETA**



40.000 pta. arte emango  
dizugu zure telebista  
zaharraren truke.

**SONY**

**OPARIAK**



Sony produktuak  
erosterakoan opari  
bereziak lor ditzakezu.

**SANYO**

**GARANTIA**



Garantian lehenak.  
Norbaitek ematen du  
gehiago?

# Den-dena daukagu kalkulaturik



**OLIO ALDAKETA**

- 1.700 z.kub.-tik behera:  
**3.275 pta.**
- 1.700 z.kub.-tik gora eta diesela:  
**4.900 pta.**

Eskulana eta BEZ barne, turbo eta multibalbuladun ibilgailuak ezik



**BALAZTA PASTILAK**

- R-4, 5, 6, 7 eta 12:  
**4.850 pta.**
- R-9, 11, 21, 19, S-5, Clio, Express eta Tvingo:  
**6.335 pta.**
- Laguna, Espace, R-25:  
**7.825 pta.**

Eskulana eta BEZ barne



**BALAZTA ARGIAK**

- 3. balazta argia:  
**4.745 pta.**

Eskulana eta BEZ barne



**PNEUMATIKOAK**

- **CONTINENTAL:**  
145/13: 7.513 pta.  
155/70/13: 8.773 pta.  
165/70/13: 10.968 pta.  
185/65/14: 12.131 pta.
- Deskontuak baita ere:  
**MICHELIN, GOOD YEAR**  
Eskulana eta BEZ barne



**OLIO IRAZKIA-AIRE IRAZKIA BULAK**

- 1.700 z.kub.-tik behera: **9.601 pta.**
- 1.700 z.kub.-tik gora eta diesela: **11.728 pta.**

\*turbo eta multibalbuladun ibilgailuak ezik

**MANTENIMENDU OSOA**



**Ekainaren 30era arteko eskaintzak**



# MECA

**Mantenimendurako eskaintza ezin hobeak**